



Leiho bat gaixo ikusezinentzat

Eva Maria Hazas durangarra ezin da etxetik irten, elektromagnetismoak eta gai kimikoek kalte egiten diotelako. Bere ingurukoek elkarte bat sortu dute, horrelako gaixoei ikusgarritasuna emateko eta dibulgazioa lantzeko. • 2-3

“Durangarrak mendeurreneko ospakizuneko parte izatea gura dugu”

Jon Andoni Bengoetxea
Kulturaleko presidentea • 20



Asier Aginako preso durangarra aske utzi dute, osasun arazoengatik zigorra eten ostean

Durango | Aginakori ebakuntza garrantzitsu bat egin zioten orain hiru aste. Gaur emango dizkiote emaitzak medikuek. • 4



Airearen kutsadura, durangarren kezka nagusi

Durango | Udalak ikerketa soziopolitikoa landu du, herriko arazoei eta politikari buruz. EAJk irabaziko lituzke maiatzeko hauteskundeak. **5. orrialdean**



2019ko matrikula librea ZABALIK

On-line

Otsailaren 4tik
Otsailaren 21eko 13:00etara arte

36,18€

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45



“Hemendik 15 bat urtera beste era batera ikusiko ditugu gauzak, tabakoagaz gertatu den bezala”

Gai kimikoei eta elektromagnetikoei sentikorrak direnen bizi kalitatea hobetzeko neurriak eskatu dituzte

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Eva Maria Hazas durangarraren gaixotasuna ezagutzean, gaur egun daramagun bizimoduaz pentsaraztera eramaten zaitu. Uhinak eta kutsadura hain hedatuta dauden gizartean, gai kimikoen eta elektromagnetikoen eraginei oso sentikorra da, etxetik ezin ateratzearaino. Hori gutxi ez, eta fibromialgia eta neke kronikoa ere baditu. Sentsibiltate zentraleko lau gaixotasun horiek ditu eta kasu larri horrek bultzatuta, SFC-SQM Euskadi Aesec elkarteak sortu dute bere ingurukoek. Gaixotasun horiek dituztenak eta euren senideak orientatzea, diagnostikoetan laguntzea, bizi kalitatea hobetzeko neurriak adostea eta prebentzioa sustatzea dira euren helburu nagusiak. Eva Mariaren senarra, Roberto Martinez, da elkarteak presidentea.

Eguenean aurkeztu zenuten elkarteak. Bertan azaldu zenuen Eva Maria ezin-go zela joan, gaixotzeko arriskuagatik. Zerk egiten dio kalte?

Arnasbideetatik, azaletik zein elikagaien bidez sartzen zaizkigun osagai kimiko guztiek eragiten diote: lurrinek, arropa leungarriek, desodoranteek, aire kutsadurak... Aire txarra dagoen egunetan, leihoak zabaldu ere ezin ditugu egin etxean. Produktu ekologikoak erosi behar izaten ditugu jateko, eta usainik bako produktuak garbiketarako. Bestalde, kutsadura elektromagnetikoak ere kalte egiten dio: wifiak, mugikorrek, mikrouhin labeak, telefonia antenak... Etxean dena zainduta daukagu, eta bisitan etortzen direnek asepsia eginda izaten dute [arropa eta gorputza produktu bereziekin garbitzen dute, mikrobioak kentzeko]. Krisiren bat edukitzen badu, hanketan igartzen du, ahotsean, sistema kognitiboan... Egun batzuk ohean daramatza, aurkezpenerako

egin zuen bideoa grabatzearen. Esfortzua horrela ordaintzen du.

Noiz hasi zen gaixotzen?

Berak uste du betidanik eduki dituela sintomak, baina ez zekien zer gertatzen zitzaion. Kolikoak izaten zituen sarri, eta 2000. urte-tik aurrera txarrera egin zuen, oso txarto egotera. Egunean 3 ordu min itzelekin pasatu zitzaizkeen, eta zer zeukan ez jakiteak estutasun handia sortzen zion. Interneten bilaka hasi, eta histaminosiari buruz irakurri zuen; gorputzak duen substantzia bat da histamina, hainbat arlotan oreka ematen duena. Sevillako zentro batean konfirmatu zioten histaminosia zeukala. Elikagai batzuk kendu eta asko hobetu zen. Baina histaminosiak beste gaixotasun batzuk estali zituen ordura arte. 2014tik aurrera, sentsibiltate kimikoa indar gehiagoz hasi zitzaion erasaten, eta geroxeago, elektromagnetikoa. 2015ean Bartzelonako Sola medikuarengana heldu, eta gai ki-

“

Aire txarra dagoen egunetan leihoak zabaldu ere ezin ditugu egin etxean”

“

Exean dena zainduta daukagu, eta bisitan etortzen direnek asepsia eginda izaten dute”

■

mikoei sentikortasuna, hiperelektrosentikortasuna eta fibromialgia



Roberto Martinez Almazan
SFC-SQM Euskadi
Aesec elkarteak
Durango | 1973

diagnostikatu zizkion, maila ertain batean kokatuta. Ordurako, ezin zen lanera joan, eta gaixotasunak txarrera egiten jarraitu du gaur arte. Esposizio bakoitza gorputzean geratzen da, metatu egiten da, horixe da gaixotasun hauek duten alderik txarrena. Hiru urte hauetan lan handia egin du informazioa bilatzen, elkarteekin kontaktuan jartzen, eta ordutik txarrera egin du.

Zuen lagunak oso inplikaturik daude. Ez zaudete bakarrik.

Egia esateko, zorte handia eduki dugu. Ez gara bakarrik geratu, eta hori funtsezkoa da. Elkarteak osatzen hasterakoan, Albertogaz eta Natxogaz berba egin genuen, adibidez. Izan ere, gaixoak gaixorik dau eta konplikaturik da eurek lanera batzea. Lagun hauek lehenagotik zeuden gugaz. Eva Mariagaz egoteko zer egin behar zen galdetu zidaten, eta bisita egiteko prestatzen dira, ume eta guzti. Alberto eta Natxo oso inplikaturik daude elkarte-ko zuzendaritzan, eta beste batzuk ere, etorri ez arren, inplikaturik daude. Eva Mariak esaten duen lez, zortea eduki dugu hain lagun onak izanda; horrelako une kritikoetan ikusten duzu benetan laguntzeko

prest dagoen jendea. Babes talde handia da guretzat, bihotzean daramaguna. Eva Mariak ikaragarri maite ditu. Familiaren kasuan ere berdin, ondo ulertu dute eta beharrezko aldaketak egin dituzte bisitan etorri ahal izateko. Hau guztia ez da ohikoa; jendea bakartzea da ohikoa. Gaixoa ezin da taberna batera joan, zinera... eta jende bat urrundu egiten da. Batzuek ez dute sinesten gaixotasunak benetakoak direnik. Bakartze horrek buruaz beste egiteko joera dakar sarritan. **Zelakoa da elkarbizitza inguruko bizilagunekin?**

Gure inguruko jendea nahiko ondo portatu da. Adibidez, goiko bizilagunak bikarbonatoagaz garbitzen du arropa, usainik bota ez dezan. Albokoagaz wifiaren erabilera negoziatu genuen. Bizilagunek etxea margotu behar badute, abisua ematen digute. Gure etxepean desgaitasun intelektuala dutenentzako zentro bat dago, eta zabaldu zutenean frekuentziak ugaritu egin zirela ikusi genuen, etxean dugun aparatu batez. Eurekin berba egin ostean, haririk gabeko telefonoa lekuz aldatu zuten, eta mugikorrek kutxa batean gordetzen dituzte, izkina batean.

Jarrera horiek salbuspena dira antzerako gaixotasunak dituztenen eguneroko bizitzan. Batzuek diote ea zergatik ez goazen kutsadura bako herri txikiren batera, baina hori ghettoak sortzea da, eta orduan bai zure gaitza ez dela ikustarazten.

“

Batzuek diote ea zergatik ez joan kutsadura bako herri txikiren batera, baina hori ghettoak sortzea da”

■

Gaixoen bizi baldintzak zelan hobetu adostea da egin behar duguna, baita prebentzioa lantzeko ere. **Osakidetzagaz batzartzeko asmoa duzue. Zer eskatuko diezue?**

Asistentziarako plan integral bat landu gura dugu, astiro-astiro eta denboragaz gauza batzuk aldatzen saiatzeko. Adibidez, Eva Mariak atzamar bat apurtzen badu, medikuarenera joan eta txarrago irteten da. Atzamarra osatuta, bai, baina astebete ohean pasatu beharra dauka. Beraz, mediku batek etxera etorri behar badu, protokolo



baten arabera lan egin dezala, ez bere prestutasunaren arabera. Medikuek formakuntza behar dute gaixotasun hauek ezagutzeko, eta jakintza bera edukiko duten espezialistak ere behar dira. Osasun zentroetan gune zuriak egotea ere ondo legoke. Andaluzian, esaterako, asistentziarako protokolo bat dute. Madrilen, gai kimikoei sentikorrek direnentzat ohar bat ipini dute zentro batean, hori edukiz gero abisatzeko eskatzeko. Gaztela Mantxan formakuntza saioak egin dituzte medikuekin. Hemen ere gauzak antzera edo hobeto egin ditzakegu.

Zer egin dezakete udalek? Durango-koak instalazioetan garbiketarako

produktu bereziak erabiltzeko konpromisoa hartu du aho batez, Herriaren Eskubideak bultzatuta.

Garbiketen lizitazio berria egiterakoan, produktu horiek erabiltzea exijitu dezatela. Fumigazioak egiterakoan, berdin. Wifia leku publikoetan egongo ez balitz, pauso handia litzateke; ez dut uste beharrezko zerbait denik, eta guztientzat izango litzateke ona. Wifia kablean ez egoteak utopia dirudi, baina espazio publikoetako erabilera arautu daiteke; gauez amatatzea izan ahal da lehen pausoa, bihar bertan egin daitekeena. Kaleak margotzerakoan, abisua eman dezatela. Eremu zuriak sortzea itzela litzateke, wifirik eta mugikorrik

bako parkeak, esaterako. Hori guztiontzat litzateke ona. Lehen, bazirudien kea kentzea ezinezkoa zela, baina orain badaude kerik gabeko guneak. Gaixotasunak dituztenentzat laguntza ekonomikoak ere ondo leudeke, produktuak garestiagoak baitira. Bestalde, noski, airearen kalitatea hobetzea. Fundizioak, paper fabrika... Durango dagoen airea aldatzea. Pauso txikiak emanda, Durango erreferente bihurtu daiteke pertsona

“

Wifia leku publikoetan egongo ez balitz, pauso handia litzateke; ez dut uste beharrezko zerbait denik”

hauen bizi kalitatea hobetzeko eta prebentzioa lantzeko ildoan.

Aurkezpenean argi utzi gura izan zenuen ez zaudetela teknologien aurka.

Hori da. Eva Maria bera ere teknologiazalea da, guk ez dugu internet kentzerik gura. Hori bai, wifia barik kablea ipini daiteke, ikaste-txeetan adibidez. Gauza asko egin daitezke. 4Ga kasik ikertu barik ezarri da, eta orain 5Ga dator, hau ere ikertu bakoa. Kalifornian (AEB), esaterako, ikertu arte debekatu egin dute. Mugikorraren gaia zail ikusten dut, jendea engantxatuta dago eta. Hala ere, uste dut hemendik 15 bat urtera beste era batera ikusiko ditugula gauzak, tabakoagaz gertatu den bezala. Helduko da erregulazio bat, baina arazoa da batzuentzat berandu izango dela. Eva Mariaren eta beste ehunka gaixoren moduan, dagoneko atzeraezina izango da.

Eva Mariaren jarrera miresgarria iruditzen zait. Gaixorik egonda, lan altruista egin du: informatzeko, elkar-tea sortzeko, prebentzioa sustatzeko.

Meritu itzela dauka! Beti gustatu izan zaio jendeari laguntzea. Psikologian doktoratua da, gatazken erresoluzioan aditua. Topatu duen informazio hori guztia beraretzat gorde zezakeen, bere egoera hobetzen saiatu eta kito. Baina esan zuen: “Egin dezagun zerbait jendeari laguntzen saiatzeko, ni bezala galduta egon ez dadin”. Pertsona paregabera da, gaixorik egonda ere besteen bizi kalitatea hobetzeko lan egiteko prest dagoena. Izan ere, argi ikusten du neurriak hartu ezean arazo hau handiagotzen joango dela; gaur egungo gaixotasuna da. Zergatik ez zen hainbeste gertatzen orain 30 urte? Ez zegoelako elektromagnetikoen eta kimikoen hainbesteko esposizioak. Egun bate-tik bestera hainbat gauza aldatu ditugu eta gure gorputzari kosta egiten zaio onartzea. Ez dakigu zer suposatuko digun.



Alberto Silva eta Natxo Carton Robertoren eta Eva Mariaren lagunak dira.

Gaixotasunak dakarren bakardadea apurtzen duten lagun onak

Urrundu beharrean, bere lagun batzuek kontzienteki sendotu dute hartu-eman Eva Mariagaz

DURANGO • M.O.

Sentsibiltate zentraleko gaixotasunak dituztenentzat eta euren ingurukoentzat erreferentzia puntu bat sortzeko asmoz jaio da elkarte (www.sfcsmquiskadi-aesec.org), eta zuzendaritzako kide dira Alberto Silva eta Natxo Carton. Bertan egingo duten dibulgazio lanaz aparte, ekarpen handia egiten dute laguntasunetik: Eva Mariaren etxera bisitan joatea, gaixotasunak dakarren isolamendua apurtzeko. Horretarako, protokolo bati jarraitzen diote.

"Bera ikusteak bete egiten zaitu, poza ematen du bera pozik ikusteak"

Natxo Carton ustez, "gauzak aldatzeko gogoia" ere badago euren ekarpenaren oinarrian. Eta, gauzak aldatzen saiatzeko, norbere ohiturak

aldatzen hastea da lehen pausoa. Bisitan joaten direnean, protokolo zehatza betetzen dute, Silvak kontatzen duena. "Arropa bikarbonatoagaz garbitzen dugu, edozein usain eta gai kimiko ezabatzen du eta. Dutxatzerakoan ere, gorputza bikarbonatoagaz garbitu behar izaten dugu, eduki ditzakegun usainak, desodoranteak-eta, kentzeko. Gero, etxerantz joaten garenean, inogaz gurutzatzea ere saihesten dugu. Protokoloari jarraitu ezik bere etxea kutsatu dezakegu, eta bera zorabiatzen hasten da". Mugikorrik ere ez dute eramaten.

Umeekin ere bai

Etetik irten ezin denarentzat, bisita batek balio itzela du. "Bera ikusteak bete egiten zaitu, poza ematen du bera pozik ikusteak", dio Silvak. Sarritan umeekin ere egin izan dute protokoloa. "Umeen besarkada sentitzea itzela da berarentzat", Carton esanetan.

Asier Aginako preso durangarrari kartzela zigorra eten diote osasun arazoak izateagatik, eta joan zen eguenean geratu zen libre, Valentzian

Orain hiru bat aste ebakuntza garrantzitsu bat egin zioten eta medikuek gaur emango diote bere osasun egoeraren berri

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Asier Aginako preso durangarra libre geratu zen aurreko asteko eguenean, osasun arazoengatik kartzela zigorra eten eta gero. Orain hiru bat aste ebakuntza garrantzitsu bat egin zioten, eta bere abokatuek libre uzteko eskaria egin zuten. Epaitegitik eguenean heldu zen bere aldeko erantzuna Picassenteko espetxera (Valentzia, Herrialde Katalanak), eta arratsaldean askatu zuten.

ANBOTOk Aginakogaz berba egin ahal izan du, telefonoz, eta esan du momentuz ondo dagoela, baina medikuen emaitzen zain.

Aginakok Gorka Fraile gogoan hartu gura izan du, eta hura askatu ez izana salatu du

Kartzela berean daude Aitziber Coello emaztea eta euren 15 hileko semea ere

Gaur dauka medikuagaz kontsulta, eta bertan jakingo du ebakuntzaren emaitza, baita gerora zein tratamendu jasoko duen ere. Ospitalean egon zen egunetan polizien eta medikuen partetik "tratu ona" jaso zuela azaldu du, kazetariaren galderari erantzunez.

Fraile gogoan

Asier Aginakoren kasuagaz, gaixo larriak dituzten presoek gaia azaleratu da berrir. Jaiki Hadi osagileen elkarteak 21 preso ditu gaixo larrien zerrendan, eta Durangokoa da bat, Gorka Fraile. Aginakok ere



Gaixorik dauden presoek egoera salatzen 2017an Sarek deitutako mobilizazioaren irudia.

gogoan hartu gura izan du, eta hura askatu ez izana salatu du. "Nigaz legea bete dute, komatxo artean nolabait esanda, baina gure herrian badago beste preso bat gaixorik, eta beragaz ez dute betetzen lege hori. Gorka Fraile ez dute oraindik askatu". Fraileri minbizia topatu zioten 2015ean, eta abenduan Duesoko (Kantabriako) kartzelara hurbildu zuten Badajozetik, bigarren gradua onartu eta gero.

Ohar bidez, Sortuk Espainiako Gobernuaren kartzela politika kritikatu du, eta "garai politiko berriak neurri humanitario berriak" eskatzen dituela aldarrikatu du.

Emaztea eta umea, kartzelan
Aginakok 15 urte egin ditu preso, lehenik Frantziako karteletan eta gero Espainiakoetan. Orain Valentzian egon da, eta urtebete

geratzen zitzaion zigorra osorik betetzeko. Kartzela berean daude Aitziber Coello emaztea eta euren 15 hileko semea.

Manifestazioa Elorrioren

Bestalde, kartzela politikaren gaiaz jarraituz, hainbat elorriar kalera irten ziren martitzenean, espetxean hildako Arkaitz Bellon eta Jose Mari Aranzamendi gogoratzeko.

Kulturartekotasuna sustatzeko, bideo lehiaketa egingo dute ikasleekin

DURANGO • M.O.

Udaleko Kultura eta Migrazio Sailek, Bizenta Migel Bibliotekak eta Durango Irratiak Book Trailer lehiaketaren hirugarren edizioa antolatu dute. 11 eta 17 urte bitarteko ikasleekin kulturartekotasuna eta elkarbizitza lantzea da helburua. Horretarako, hogeitaz liburu zerrenda batetik bat aukeratu eta laburpena bideoan grabatu beharko dute. Martxoaren 15era arte izango dute aurkezteko epea.

Aurten lau ikastetxe gehiagok parte hartuko dutela nabarmendu du Mari Jose Balier bibliotekako presidentek. Pilar Rios alkateordearen esanetan, gazteek "elkarriketarako, analisirako eta ulermen kritikarako gaitasunak" landu ahalko dituzte.

Txiki Parka antolatu dute martxoko, apirileko eta maiatzeko asteburuetarako

DURANGO • M.O.

Durangoko Udalak Txiki Park estali bat instalatuko du 2 eta 5 urte arteko umeentzat Landako Gunean, martxoko, apirileko eta maiatzeko asteburuetarako. Zapatu eta domeketan egongo

Aste Santuko egunetan ere zabalduko dute, apirilaren 18an, 19an eta 22an

da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Aste Santuko egunetan ere zabalduko dute, apirilaren 18an, 19an eta 22an.

Bestalde, martxoaren 2an, 3an eta 5ean, Karnabaletako Haur Parkea jarriko dute.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko otsailaren 8a
17. urtea - 749. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC
Produktu hau
komunikabide
irratietako materialak
egiten dira, baliabideak
da eta Bako Produktuak
Irakurlearen
irratietako materialak
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gizon bat atxilotu dute Durangon, emakume bat mehatxatzeagatik

DURANGO • M.O.

Martitzen goizaldean, gizon bat atxilotu zuten Durangon, emakume bat mehatxatzeagatik. 04:15 inguruan izan zen gertakaria, Antso Estegiz kalean. Herrizaingo Saileko iturriek azaldu dute inguruko lekuko baten abisua jaso zutela, bikote

Herrizaingo Saileko iturriek azaldu dute inguruko lekuko baten abisua jaso zutela

bat kalean eztabaidatzen ari omen zelako.

Ertzainen patruila bat biko-tearengana ailegatu zenean, gizona emakumea mehatxatzen harrapatu zutela esan dute, eta, hori dela-eta, genero indarkeria leporatuta atxilotu zutela segidan. Herrizaingo Sailaren arabera, ez dago gizonak indarkeria fisikoa erabili izan zuen konstantziarik. Mehatxatu izanarena bai, ordea.



'Tarajaleko sarraskia' gogoan izango dute bihar, mobilizazio baten bidez

DURANGO • M.O.

Eguaztenean 5 urte bete ziren Ceutako Tarajal hondartzan Guardia Zibilak 14 migratzaile hil zituenetik, eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak elkarretaratzerantz deitu du bihar-ko, 12:30ean, Andra Marian.

2014ko otsailaren 6an gertatu zen, hainbat migratzaile Tarajal hondartzara ailegatzeko ahaleginetan zebiltzanean. Geroztik, *Tarajaleko sarraskia* lez gogoratzen dute migratzaileen aldeko mugimendukoek. "Gertaera larri hauek ez dute oraindik inolako ondorio politikorik izan, ezta juridikorik ere, eta arduradunek zigorrik jaso barik jarraitzen dute", salatu dute.



Azken osoko bilkurako irudia, urtarrilaren 29an.

Durangon hauteskundeetako emaitzak errepikatu egingo direla aurreikusi du ikerketa soziopolitikoak

Udalaren inkestan parte hartu duten 600 herritarren iritzia kontuan izanda, EAJk 8 zinegotzi lortuko lituzke, EH Bilduk 7, Herriaren Eskubideak 3, PSE-EEK 2 eta PPk 1

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Udalak eginiko ikerketa soziopolitikoaren arabera, EAJk irabaziko lituzke maiatzaren 26ko udal hauteskundeak, eta orain lau urteko emaitzak errepikatu egingo lirarteke zinegotzi kopuruari dagokionez: EAJk 8, EH Bilduk 7, Herriaren Eskubideak 3, PSE-EEK 2 eta PPk 1. Ikerketa urrian egin zuten, 18 urtez gorako 600 durangarri telefono deiak eginda.

Udalak prentsa ohar bidez eman ditu ikerketaren ondorio batzuk. Elkarrizketatutako pertsonen %29,8ri hurrengo udal hauteskundeak EAJ-PNVk irabaztea gustatuko litzaieke. %17,2k EH Bilduren alde egiten dute apustu, eta %3,7k Herriaren Eskubidearen alde. Inkesta egin zenean, EAJko eta PSE-EEKo alkategaien izenak bakarrik zeuden publiko eginda.

Horrez aparte, amaitzearen den legealdiko balorazio lez, Aitziber Irigoras alkate jeltzaleak 55,72ko

datua lortu du; EH Bilduko Dani Maeztuk 22,75; PSE-EEKo Pilar Riosek 20,48; Herriaren Eskubideako Julian Riosek 14,30 eta PPko Francisco Garatek 6,42.

Airea ikertzeko, 70.000 euro Bestalde, herriko arazo eta beharri-zanengatik ere galdetu dute ikerketa soziopolitikoaren baitan. Azken hileetako kezka soziala berretsita, airearen kutsadura da, inkesta-

Ikerketa urrian egin zuten, 18 urtetik gorako 600 durangarri telefonoz deituta

Aireaz aparte, aparkaleku gabezia eta trafikoa dira, inkestatuen ustez, arazorik handienak

%23,3

Aireaz arduratuta

Inkestatuen gehiengoaren ustez, airearen kutsadura da arazorik handiena

tuen ustez, arazo nagusia. %23,3k aipatu dute.

Kezka horren aurrean, udalak ohar berean informatu du 70.000 euro inbertituko dituela hatsaren jatorria aztertzeke eta horren ostean behar diren neurriak hartzeke. "Udalak badaki jakin Durangaldean azken hilabete hauetan zehar hatsagaz lotutako gertaerengatik ziurgabetasun eta kezka soziala dagoela. Eusko Jaurlaritzako In-

gurumen Sailak neurketak egiten dituen arren, Durangoko Udalak beharrezkotzat jotzen du aurre-rapauso bat ematea", azaldu dute oharrean.

Erantzun espontaneoak eskatuta, %10,8k gune berde gehiago sortzea eskatu dute

Laster lizitaziora aterako dute proiektu hori, eta ez da Durangora mugatuko, bere inguruetan ere azterketa egingo dute eta.

Herriaren Eskubideko bozemaile eta alkategai Julian Riosen ustez, airea ikertzeko iragarpen hori ez dator bat orain arte erakutsitakoagaz, eta "hauteskunde gertutasunaren arabera" dela dio. "Gobernu taldeak arazo hori behin eta berriz ukatu du, arnasten dugun airea hobetzeko herritarrek egindako mozio eta proposamen guztiak baztertu dituelarik".

Parkingak, gune berdeak... Aparte, aparkaleku gabezia (%18) eta trafikoa (%9) dira, inkestatuen ustez, arazorik handienak. Udalaren arabera, %70ek herri kanpoan disuasiorako parking bat eraikitzea ondo ikusten dute.

Aurrera begirako obren inguruan erantzun espontaneoak eskatuta, %10,8k gune berde gehiago sortzea eskatu dute, eta %5,7k estazioko eremua berritzea.

EH Bilduk irudiak argitaratu ditu Durangoko eraikin publiko hutsen egoera salatzeke, eta eraikinak herriko beharrianetarako erabiltzea proposatu du

Correosen eraikin zaharra, Garai jauregia, ospitale zaharra, merkatu plaza eta Muruetako dorretxea barrutik ikusten dira EH Bilduk publikatutako bideoetan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

EH Bilduko kideek Durangoko zenbait eraikin publiko hutsen irudiak erakutsi zituzten martitzenean prentsaren aurrean, udal gobernuaren "utzikeria" salatzeke asmoz. Correosen eraikin zaharra, Garai jauregia, ospitale zaharra, merkatu plaza eta Muruetako dorretxea barrutik ikusi ahal dira

irudiotan, kasu askotan egoera txarrean. Horrez gainera, zabalik dagoen Ezkurdiko pilotalekuan teilatua konpontzeko beharra ere azaleratu zuten.

Elkarteen eskariak

EH Bilduko kideek esan zuten Durangon 160 elkarte inguru daudela, eta horietako askok espazio baten

Ezkurdiko pilotalekuan teilatua konpontzeko beharra ere azaleratu zuten

Garrastatu: "Espazio hauek ez erabiltzeak herriaren garapena oztopatzen du"

beharra aldarrikatu izan dutela. Adibidez, Garai jauregian dagoen Geu Bek eta ospitale zaharrean bildegia duen Kriskitinek beste lokal bat eskatuta daukate; Ima Garrastatxu alkategaia Kriskitineko kide da, eta eskaria egon dela baieztatu du. Eraikin horiek berriztapena behar dutela ondorioztatzen da bideoak ikusita. "Uste dugu espazio hauek durangar ororen jabetza direla, eta ez erabiltzeak herriaren garapena oztopatzen duela", adierazi zuen Garrastatxuk.

Ideiak mahai gainean

Hutsik dauden eraikin publikoetarako ideiak bota zituzten prentsaurrekoan, berriztu eta gero erabilera bat emateko: Correosen bulegoetan ludoteka edo gazteleku

EH Bilduko kideek esan zuten elkarte askok espazio baten beharra aldarrikatu dutela

bat sortzea, Garai jauregian eragileentzako bilgunea, Muruetako dorretxean auzorako elkargunea, ospitale zaharrean alokairu sozialeko etxeak... Iker Urkiza zinegotziaren esanetan, udal hauteskundeak irabaziz gero eraikin horiek berritzeko lan egingo du koalizioak.



Ezkerretik hasita, Iker Urkiza, Marisol Juaristi, Ima Garrastatxu eta Jon Bingen Landabidea.

Gaztelekua birmoldatzeko lanak esleipen prozesura atera dituzte



IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Gaztelekua erabilera anitzeko bilgune bihurtzeko asmoa aurrera doa apurka-apurka. Baldintza orria zehaztu eta lanak esleipen prozedurara atera dituzte. Interesatuta dauden enpresek otsailaren 13ra arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko. Horren ostean, udal ordezkariak, hainbat irizpide erabilita, proposamen denak aztertuko dituzte, eta lanak aurrera eramango dituen enpresa aukeratu dute. "Ikusi egin behar da prozedura zelan doan, baina lanak irailean amaituta egotea da gure asmoa", adierazi du Lore Muñoz alkateak.

Erabilera anitzeko bilgune berriak, azpiegitura eraberrietuekin, bilerak, aurkezpenak edo bestelako ekimenak antolatzeke aukera zabalagoa eskainiko du eta herritarrei zabalik egongo da.

Eguraldi eskasa egin arren, milaka lagun San Blasetan

Hotza eta euria ez ziren eragozpena izan milaka lagunek Abadiñoko San Blas azokara urteroko bisita egiteko

ABADIÑO • A.M.

Goizeko lehen orduetan euria barra-barra bota bazuen ere, milaka lagun joan ziren San Blas eguneko azokara. 250 bat abelburu eraman zituzten abeltzainek, eta 120 postu jarri zituzten guztira. Saridunak

Aitor Bilbao (bigantxa eta behirik onenaren sariak jaso zituen) eta Ibon Lasuen (zekorrik eta herriko behi talderik onenaren sariak jaso zituen) izan ziren. Eguerdi aldera, ostarreak lagun, jende gehiago egon zen azokan.



Aurtengo San Blas eguneko irudi bat.

Guraso talde bat Abadiñoko Udalaren ordezkarietza bategaz bildu da aisialdi eskaintza hobetzea eskatzeko

Orain urtebete inguru ia bostehun sinadura bildu zituen guraso talde honek; aisialdi eskaintza gehitzea eskatzeaz gainera, aisialdi guneak hobetzea eskatu diete ordezkariari

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Iazko negutik, Zelaietako guraso talde bat jo eta su dabil lanean umeentzako aisialdi egitarau "osoago" bat eskatzeko eta azpiegitura hobeak eskatzeko. "Agenda egon badago, baina eskasa da eta beteta dago", azaldu du Ane Etxeandia abadiñarrak. "Ez dugu ulertzen, izan ere, kultura eskaintza auzoen eta auzotarren arteko mugak eta distantziak apurtzeko oso baliagarriak izan daitezkeela uste dugu", gehitu du jarraian Itsaso Saizarrek.

Ekainaren 28an sartu zuten lehenengo eskaera udaletxean. Ha-

la ere, ez dute erantzunik jaso joan den astera arte. "Sare sozialetan aipatuak izan ostean jo dute gugana, eta horrek are mingarriago egiten

"Auzo eta auzotarren arteko muga eta distantziak apurtzeko baliagarria da kultura"

Ekainaren 28an sartu zuten lehen kexa, baina aurreko astera arte ez diete erantzunik eman

du. Badirudi udalaren eta herritarren arteko harreman sareek ez dutela funtzionatzen", azaldu du Saizarrek. Hainbat kexa sartu dituzte biek udalean, eta orain arte erantzunik jaso ez izana salatu dute. Negua heldu da eta iazko arazo berdinagaz jarraitzen dutela salatu dute.

Hain zuzen ere, urtarileko oso bilkuran ere eztabaidatu zuten gaia, EH Bilduko Mikel Urrutiak Jose Luis Navarro alkateari galdegina ostean. Alkatearen esanetan, udala beharrean dabil alternatiba bat emateko saiakeran.

Durungaldeko Berbalagunen X. Kultur Lehiaketa

1. Non hasiko da 21.korrika? a) Gasteizen b) Garesen c) Otxandion	2. Zelan deitzen zaio leku eguzkitsuari? a) Laiotza b) Argialdea c) Egutera	3. Zenbat urte darama Anboto astekariak euskaraz informatzen? a) 10 urte b) 14 urte c) 18 urte	4. "Elorrio Zabaltzen" aplikazioak zertarako balioko du? a) Kaleetako gertakari eta matxurak jakinarazteko. b) Elorrioko herri garraioari buruz informatzeko. c) Elorrioko kultur agenda zabaltzeko.
5. Durungaldeko zein herritan ematen da Taxi-Auzune zerbitzua? a) Durangon b) Abadiñon c) Iurretan	6. Zenbat egunez eraman behar da lepoan San Blaseko kordioa ez tulik ez edukitzeko? a) 10 egunez b) 7 egunez c) 9 egunez	7. Zein izan da 53. Durangoko azokako libururik salduena? a) Kirmen Uriberen "Mussche" b) Uxue Alberdiren "JenisJoplin" c) Harkaitz Canoren "Mecanografiak"	8. Nork irabazi du 2018ko Bizkaiko bertsolari txapelketa? a) Miren Amurizak b) Onintza Enbeitak c) Etxahun Lekuek
9. Durungaldeko zein herritan moldatu dituzte kutxu matxista duten hainbat kantu tradizional? a) Berrizen b) Durangon c) Abadiñon	10. Mendikate hauetako zein ez dago Urkiolako parke naturalaren barruan? a) Aramotz b) Aranguren c) Arangio	11. Noiz bonbardeatu zuten Durango Frankoren agindupean zeuden hegazkin italiarrek? a) 1937ko martxoaren 31n b) 1938ko maiatzaren 3an c) 1937ko martxoaren 15ean	12. Nor omenduko du 21.korrikak? a) Euskaltzaindia b) Txillardegi c) Durangoko azoka
13. Zenbat bihotz dauzka olagarroak? a) Bat ere ez b) Bat c) Hiru	14. Zein abeslarik konposatu zuen "Xalbadorren Heriotzean" abestia? a) Mikel Laboak b) Eñaut Elorrietak c) Xabier Letek	15. Noiz burutu zen Berbalagunek iaz antolatutako VI.mintzodromoak? a) 2018ko abenduaren 17an b) 2018ko azaroaren 28an c) 2018ko urriaren 8an	16. Zein da munduko metalik garestiena? a) Urrea b) Platinoa c) Rodioa
Izen-abizenak eta telefonoa:		Erantzun zuzenak markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan otsailaren 22a baino lehen. Saria, e-book bat.	

MINTZATALDEAK - GURASOLAGUN - IKASTAROAK ETA TAILERRAK - TXANGOAK - MINTZODROMOAK

DURANGALDEKO Berbalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo, euskalduna izanda, euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

Mintzataldeak. 5-6 lagunekin taldeetan biltzen gara euskaraz egiteko, disponibilitate, adin eta zaletasunen arabera.

Gurasolagun. Familientzako mintzataldeak dira; jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, helduak eta haurrak batera.

Ekintza osagarriak antolatzen ditugu, besteak beste; txangoak, tailerrak, mintzodromoak... Euskaraz egin eta lagun berriak ezagutuko dituzu.

eta guztia DOHAINIK

Zatoz gurekin!

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com

durangaldea@aek.eus

Durungaldeko Berbalagunak | Facebook

Sustatzaileak



Babesleak



praktikatu
mintzatu eta
egiteko



N-634 errepideko lanetan bazterbidea kendu dute eta une honetan "oso arriskutsu" dago ziklistentzat

Berna eta Euba arteko tartean, bakarrik beharrean, ahal dela taldean igarotzeko gomendioa egin dute zikloturistek



Euba eta Berna arteko errepideko lanak iazko urrian hasi zituzten.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Berna eta Euba artean, N-634 errepidea hobetzeko lanak egiten dabil Bizkaiko Aldundia. Obren ondorioz, bazterbidea kendu dute eta bidea estuagoa da. Egoera horrek

Segurtasuna hobetzeko, "zorua zeozertxo konpondu" daitekeela uste du Fernan Ruizek

handik igarotzen diren ziklisten segurtasunari eragiten diola uste dute zikloturistek.

"Errepidean, berez, beti dago arriskua, baina tarte hori are arriskutsuago dago", azaldu du Fer-

nan Ruiz zikloturistak eta Iurreta Txirrindulari Elkarteko kideak. "Errepidea estu-estu dago eta zuloz beterik", gehitu du. Uste berekoa da Berriz Bizikletari Elkarteko presidente Alexander Duran ere. "Egiten

dabiltzan lanekin oso arriskutsu geratu da, izan ere alde bietan ze goen bazterbidea kendu digute eta aste barruan trafiko handia dabil, gehienbat kamioiak", azaldu du.

Segurtasuna hobetzeko, "zorua zeozertxo konpondu" daitekeela uste du Ruizek, eta iritzi berekoa da Duran. "Lanen ondorioz, nahiko trakets dago", azaldu du. Beste neurri bat abiadura 30 kilometro ordukora jaitea eta kontrolatzea izan daitekeela azaldu du Ruizek.

"Errepidea estu-estu dago eta zuloz beterik", gehitu du Ruizek

Hobe taldean joatea

Handik dabiltzan ziklistei ere tentuz ibiltzeko eskatu diete. Oro har, taldean joateko gomendioa egin dute. "Errepide horretatik bakarrik ez joatea da onena", uste du Ruizek. Modu horretara, Duranen esanetan, "gidariak behartuago sentitzen dira gu errespetatzeko". Bakarrik joatekotan, tarte horretan "erreiaeren erditik" joatea izan daiteke irtenbide bat, Ruizen ustez; edo, bestela, "bide alternatiboak" aukeratzeko gomendatu du Duranek.

Zornotzako Udalak 60.000 euro bideratuko ditu herriko enplegua sustatzeko

Herriko enpresei edo enpresaren bat martxan jartzen duten zornotzarrei bideratuta daude

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Enplegua sortze aldera jarritako diru-laguntzak onartu ditu Zornotzako Udalak. Zornotzakoak diren enpresa edo entitateek jaso ahalko dituzte laguntza horiek, beti ere, enplegurik gabeko zornotzarren bat kontratatzen badute, behin-behinekoa den kontratua mugagabe bihurtzen badiete edo lanaldia,

gutxienez, %50era handitzen badiete, modu horretara langileen lan baldintzak hobetuz.

Ekintzaileentzako laguntzak

Enpresei eman beharreko diru-laguntza horiez gainera, ekintzaileei begirako beste batzuk ere martxan jarri dituzte. Hain zuzen, lanik barik dauden eta enpresa bat mar-

txan jartzen duen zornotzarrek jaso ahalko dituzte laguntzak.

Udalak 60.000 euroko diru atala jarri du laguntzak emateko. Pertsona bakoitzak 4.000 eta 5.000 euro artean jaso ditzake. Interesatuta dauden denek abenduaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dituzte laguntzak jasotzeko eskaerak, Zornotzako Udalean.



Andoni Agirrebeitia izango da, beste behin, EAJko zerrendaburua.

EAJk 11 aurpegi berri ditu hauteskunde zerrendan

Hautagai berriak izango dira, besteak beste, Ainhoa Salterain, Miren Martiarena eta Amaia Aurrekoetxea

ZORNOTZA • J.D.

Andoni Agirrebeitia alkategaia buru izango duen zerrenda jakinarazi du Zornotzako EAJk. Hogeia lagunak osatzen duten zerrendan 6 independente eta 11 hautagai berri joango direla nabarmendu dute, ohar batean.

Hautagai berriak izango dira, esaterako, Ainhoa Salterain, Miren Martiarena, Amaia Aurre-

koetxea eta Aimar Basañez. Beste batzuk, oster, berriro aurkeztuko dira hautagai moduan: Anartz Gandiaga, Esti Martiartu, Juan Mari Ugalde, Luciano Martinez eta Itxaso Berrojalbiz, esaterako. "Hautagai denak ilusioz daude lanari heldu eta zornotzar guztien bizi kalitatea hobetzeko", azaldu dute jeltzaleek.



Laguntzak jasotzeko eskaerak abenduaren 9ra arte aurkeztu daitezke, udaletxean.

2019ko aurrekontuak onartuta, Zaldibarko Udaleko garbitzaileek %2,5eko soldata igoera edukiko dute

Erabakiak hamabost langileri eragingo die, eta haien lan baldintzak "ahal beste" hobetzea da udalaren asmoa



Erabakia aho batez hartu zuten osoko bilkuran.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

2019an garbiketara zerbitzua lizitatzeari dagokio Zaldibarko Udalarik, eta langileen soldata %2,25 igoetza izan da hartu duten lehenengo neurria. "Garbiketara zerbitzuko langileak langile publikoak izatea da gure helburua, baina, momen-

tu honetan, ezinezkoa da. Beraz, euren lan baldintzak hobetzeko saiakera egingo dugu", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak. Erabakia aho batez onartu zuten osoko bilkuran. Horren eraginez, hamabost langileren lan baldintzak hobetuko dituzte.

Zaldibarko Udalak neurriak hartu ditu auzoetako sarbideetako seinalizazioa hobetzeko

Inbertsioak auzoetan ere

Auzoei dagokien diru partida ere handitu du Zaldibarko Udalak. Erabaki hau hartuta, argiteria hobetzea eta bideak konpontzea izango dute helburu. Beste diru partida bat ere gorde dute, auzoetarako sarbideetan seinaleak jartzeko.



Ainara Otxotorena izango da EH Bilduren alkategaia Mañarian udal hauteskundeetan

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Ainara Otxotorena Iriarte izango da Mañariko EH Bilduren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan. 34 urte ditu eta Magisteritzan Haur Hezkuntzako espezialitatea egina du. 2010etik Mañariko haurreskolan hezitzaile eta koordinatzaile lanetan dabil.

2019ko urtarrilean egindako barneko prozesu parte-hartzailean, Mañariko EH Bilduren komunitateak zerrendaburu izateko proposatu zuen Otxotorena, eta hauteskunde batzordeak proposamena egin ostean, bere burua prest agertu du alkategai izateko, "komunitate osoaren babesagaz", EH Bilduk ohar batean informatu duenez.

Hamahiru herritarrek egin dute herri ortuak lau urtez erabiltzeko eskaera

MALLABIA • J.D.

Herri ortuak erabiltzeko, hamahiru eskaera jaso dituzte udaletxean. Orain bost urte ekinena martxan jarri zutenean jasotakoaren kopuru berdina da. Guztira, hamazortzi ortu daude, eta, beraz, denentzat egongo da tokia eta lau-bost bete barik geratuko dira. Orain, eskaerak aztertu eta ortu plazak zein egoeratan dauden begiratu dute udal ordezkariak. Eskatzaileei beste lau urterako luzatuko diete lurren erabilera eskubidea.

Herri ortuak Osakidetza eta txaleten atzealdeko lur zati batean daude. Iaz, lehenengo lau urtekoa amaituta, urtebeteko luzapena onartu zuten, ordenantza horretarako aukera eskaintzen duelako.

Udaleko langileek lehenengo berba euskaraz egin dezatela bermatu gura dute Berrizen

Berrizko Udaleko langileen eta udalbatzarreko kideen artean harrera protokolo bat egin dute, euskara plana bete dadin

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko asmoz, Berrizko Udalak udal barnerako izango den euskararen erabileraren inguruko plana egin du. Plana 2022ra arte egongo da indarrean, eta euskara Berrizko Udaleko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izatea dela asmoa jakinarazi dute udaletik.

Plana aurrera eramateko, harrera protokolo bat gauzatu dute Berrizko Udaleko langileen eta udalbatzarreko kideen artean. Protokolo horretan, herritarrekin, administrazioagaz eta abarrekin nola jokatu behar duten zehazten da. Gainera, Berrizko Udaletik jakinarazi dutenez, langileek osatutako jarraipen eta euskara batzordeek protokoloaren eta erabilera plana-

ren jarraipena egingo dutela eta zehaztutako puntuak betetzen direla bermatuko dute. Onartu duten protokoloan, puntu hauek adostu dituzte, besteak beste: lehen eta

Langileek osatutako jarraipen eta euskara batzordeek protokoloaren erabilera aztertuko dute

azken berba beti euskaraz izatea, langileen arteko zein langile eta zinegotzien arteko elkarrizketak euskaraz izatea, ekitaldi publikoetan udalaren izenean dabilena euskaraz aritzea, eta esku-orriak gutxienez euskaraz egotea.



2022ra arte egongo da indarrean plana.

**Iurreta Plazaratu
dinamikak batzar
herrikoira deitu du
domekarako**

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Otsailaren 10ean, domekan, Iurreta Plazaratu dinamikak batzar herrikoia egingo du. Herriko plazan jarri dute hitzordua, 12:00etan, eta herritarrek parte hartzera deitu dituzte. 2018ko azaroan jaio zen Iurreta Plazaratu ekimena. Aurkezpenaz, "herria biziberritzeko beharrak" bultzatuta sortu zuten taldea.

Aurrera begirako lan ildoak aztertuko dituzte batzarrean. Besteak beste, herritarren parte-hartzea eta antolatu daitezkeen ekintzak aztertuko dituzte. Hainbat belaunalditako dozenaka herritarrek sortutako dinamikako bultzatzaileek abadetxea ere izango dute berbagai.

**Kanpotik ekarritako ura
beharrean, herrikoa
erabiltzea proposatuko
diete ostalariei**

OTXANDIO • J.D.
Herrian sortzen den plastikoen hondakin kantitatea murrizteko, proposamen bat lantzen dabil udala. Kanpotik ekarritako ur botilak zerbitzatu beharrean, ostalariek herriko ura erabili dezaten saiaturako dira. Aldaketa horretan laguntzeko, udala prest dago ur pitxerrak erosteko eta horiek ostalarien artean banatzeko. Ostalariekin batu eta proposamena azalduko diete, ekimenean parte hartzeko prest dauden jakiteko.

**Garaiko kultur etxe
osteko saneamendu
sarea eraberritu
egin dute**

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Herriko kultur etxearen osteko saneamendu sarea eraberritu egin du Garaiko Udalak. Abenduaren hasi zituzten konponketa lanak, eta dagoeneko amaituta daude, udal ordezkariek informatu dutenez. Urre enpresari adjudikatu zioten proiektua.

Saneamendu sare hori berriztu ahal izateko, 24.000 euroko inbertsioa egin du herriko instituzioak, 2018ko udal aurrekontuan jasotako partida bategaz.

**Atxondarren iritzia jasota, 2019an kultur etxe
berria egiteko lanei ekitea gura du udalak**

2008an, udalak Urkuzu baserria erosi zuen, Kultur Etxe berria bertan egiteko asmoagaz; egun hiru solairu dituen eraikina hustu egingo dute lehenengo, eta gero ekingo diete lanei



Herritarrekin batzarrek egin dituzte, zer egin erabakitzeko.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urkuzu baserrian egingo duten kultur etxea nolakoa izango den zehazteko, parte-hartze prozesuan murgilduta ibili dira atxondarrak, eta dagoeneko herriko hainbat talde eta norbanakok nolako kultur etxea gura duten adierazi dute. Joan zen astean egin zuten azkenengo batzarra, eta hamabost bat lagunek euren lehentasunak mahaigaineratu zituzten, teknikarien laguntzagaz. "Daukagun eraikinagaz eduki

Lehenengo hustu egingo dute eraikina, eta gero hasiko dira kultur etxeko lanak egiten

genitzakeen konfigurazio posibleak aztertu genituen batzarrean batu ginenok, eta eraikina kontuan hartuta lehentasunak nabarmendu genituen", jakitera eman du David Cobos alkateak.

Egun eraikinak hiru solairu dituen arren, kultur etxe berriak solairu bi izango ditu. "Solairuak txikiegiak ziren, eta klaustrofobikoa izan zitekeela esan digute arkitektoek. Beraz, herri batzar hauek parte hartu dugun herritarrok solairu biko eraikina izatea erabaki dugu", esan du alkateak. Gainera, kultur etxe berria egin aurretik, egun dagoen egitura guztia bota egin beharko dute, eraikina kalte-tuta dago eta. "Orain urtebete bai-

no gehiago, tratamendu bat egin genuen termiten kontra, baina egitura ikututa gelditu dela ikusita eta solairuen neurria desegokia dela jakinda, lehenengo hustu egingo dugu eraikina", esan du Cobosek. Beheko solairuak 200 metro koa dro inguru izango ditu, eta goikoa zertxobait txikiagoa izango da.

Kultur etxe berriko lanetarako, 200.000 euro baino gehiago jartzea aurreikusten dute

Behin herritarren iritzia jasota, arkitektoek proiektua landuko dute eta, horren ostean, lanak esleitzeko prozesua hasiko da. Urte amaierarako ekin gura diete lanei Atxondon. "Legegintzaldia amaitu orduko jarri gura dugu lehiaketa martxan. Lanak 2019an hastea da gure asmoa, eta kultur etxea 2020an amaituta egotea", adierazi du alkateak.

Atxondoko Udalak 2008an erosi zuen Urkuzu erretegia zena. Hasieratik, udalak kultur etxea egiteko asmoa eduki du bertan, baina orain arte ezin izan dute helburua gauzatu. Hamaika urte geroago, lan hauei ekitea gura dute, eta Atxondoko Udalak 200.000 euro baino gehiago jartzea aurreikusten du lanak egiteko.

Elorrioko Udala kiroldegiaren kudeaketaz arduratuko da, erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz

Azaroan egindako ezohiko bilkuran, kiroldegiaren eta kanpoko igerilekuen kudeaketa aldatzea erabaki zuen udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urte berria hasteagaz batera, Elorrioko Udalak kiroldegiaren eta kanpoko igerilekuen kudeaketaren ardura hartu du, erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko asmoz. Orain arte, udalak enpresa pribatu bati utzi izan dio gune bien kudeaketaren ardura, eta, lan horren ordez, urtero 275.000 euro inguru ordaintzen zizkion enpresari.

Azken urte bietan, udaleko arduradunak kudeaketa aldaketa bat aztertzen ibili dira, eta azaroan egindako ezohiko bilkuran aldaketa egitea onartu zuten, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin. "Aldaketa honegaz, egunerokotasunean udalak instalazio hauen ardura izatea gura genuen, erabiltzaileei zerbitzu hobea es-

kaintzeko asmoz", adierazi du Dani Palacios kirol arloko zinegotziak.

Bestalde, kudeaketaren aldaketa egiteaz gain, Kirola eta Gazteria arloan teknikari bat egongo dela

Kirola eta Gazteria arloko teknikaria izango du Elorriok, kirol jarduera gehiago antolatzeko

jakitera eman du udalak ohar bidez. "Kirola eta Gazteria arloak teknikari batek koordinatuko ditu, eta, hartara, aukera gehiago izango dugu elorriarrentzat kirol jarduera gehiago antolatzeko", gaineratu du Dani Palacios.



Gaur egun, udalarena da kiroldegiaren ardura.

Hareek denporak!

Hamarkada bi baino gehiago kateak hausteko borrokan

Urteurren jaialdirako prestaketa lanetan murgilduta daude egunotan Zaldibarko gazte-
txeko kideak. 1999an okupa-
tu zuten Katu-Etxe, eta bertan
egon ziren hainbat urtez gaz-
teak, ostean hiltegi zaharrera
lekualdatu arte. Bertan dabilza
beharrean euren ametsak ondu
guran. Alboko argazkia 2003ko
urteurrenekoa da, Katu-Etxeren
laugarren urteurrenekoa.
1999. urtea gakoa izan zen

Durangaldeko okupazio mugimenduarentzat. Hilabete bitan zehar, perretxikoen modura jaio ziren gaztetxeak eta gazte asanbladak. Durangaldeko etxe okupatuaren koordinakundea ere sortu zen garai horretan. Gizartean bizitzeko beste modu bat jarri zuten martxan, eta gaur egun, hamarkada bi geroago, oraindik ere espiritu eta ideia horien aterpean biltzen dira belaunaldi berriak. A.M.

Politikan

Goiztidi
Díaz Basterra
EAJ



Nolako pertsona halako itzala!

Tristeia oraindik ere batzuk ez izatea gai ezberdin pentsatzen dabeenak errespetatzeko. Ez da urruti joan behar pertsonak izan ahal dabeen berekoikeriaren adibideak ikusteko.

Helduak garen heinean ziurtzat jotzen dogu bata bestearekiko errespetua egongo dela, baina beti dagoz enbudo-krazian murgilduta bizi direnak. Horiek euren baino ez dabe kontuan hartzen eta inkisido-reak bailiran, euren atzamarrak luzatu eta okerrean artean okerrean bagina bezala seinaltatzen gaituzte.

Errespetua zer den arrastorik ez dutenek jokatzeko dabe halan. Beraiei interesatzen zaie-nean gogoratzen dira errespetuaz eta eskubideekaz. Hain zuzen be, hortan datza enbudo-krazia, nik nahi dudana egiten dot, baina zuk nik diodana egin behar dozu. Harropuzkeriaz beteriko pertsonak izan-nik, laster animatzen dira oihu egiten eta irainak jaurtikitzen.

Batek ez du arrazoi gehiago oilarkeriaz oihu egiten due-lako. Izatez, beraiek zer nola-koak diren deskribapen bat baino ez dabe egiten. Aspaldi ikasi genuen hobe dela berba ergelei jaramonik ez egitea. Izan ere, ardurarik ez dauka-tenek erraz egiten diote eraso besteen lanari, baina euren lan egin, nekez edo ezer ez.

Durangoren alde egiteko ez da zaunka egin behar, lan egin behar da. Horretan gabiltza ar-dura eta besteekiko errespetua badogunok, beti ere ezberdin pentsatzen dabeenak errespetu-tuz tratatuz. Batzuek badau-kagu durangarren konfiantza orain dela lau urtetik, eta ez dogu zaunka egin beharrik. Horregatik, zaunkei belarriak itxi, eta lanean jarraituko do-gu.

Durangaldea asteen

Otsailaren 11n ikatzaren eraginaren inguruko zineforuma, Pinondo Etxean

Durango Ikatzen eraginaren inguruko zineforuma antolatu dute Greenpeace, Durangairea eta Elorrio Bizirik plataformek, otsailaren 11rako. 19:30ean, *El lado oscuro del carbón* dokumentala eskainiko dute Pinondo Etxeko 3.5 aretoan. Dokumental horren asmoa herritarrei erregai fosil horrek eragiten dituen kalteen zerrenda bat egitea dela esan dute antolatzaileek.

Ordubete inguruan saldu zituzten Berri Txarrak kontzertu bietarako sarrerak

Durango Martitzenean ehunka lagun batu ziren Plateruenean, martxoaren 9an eta 10ean Berri Txarrak eskainiko dituen kontzertuetarako sarrerak lortzeko, eta ordubete inguruan txartel denak saldu ziren. Egunean zehar, hainbat anekdota gertatu ziren. Gazte norvegiar batek sarrera erreserbatzeko idatzi zuen Plateruenera. Bestalde, Berri Txarrak kideek goizetik ilaran zegoen jendearen bazkalosteko kafea ordaindu zuten.

EAJk beharrezkotzat jotzen du gazteen alokairua babesteko neurriak ezartzea

Abadiño Emantzipatzeko orduan gazteak dituzten zailtasunak ikusita, Abadiño EAJk beharrezkotzat jotzen du 18 eta 35 urteko abadiñoarrei laguntzak ematea. "Hainbat dira gurasoen etxetik irten gura duten gazte abadiñoarrak, baina arrazoi ekonomikoak direla tarteko, askok ezin dute hori egin", adierazi dute EAJko kideek. Beraz, hilean 250 euroko diru-laguntza bat ematea beharrezkotzat jotzen dute jeltzaleek.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Ume eta gazteen aisialdirako eskaintza: ludoteka, gaztelekua eta gun e estaliak

Asko eta asko izan zarete aisialdiaz kezka agertu duzuen familiak. Ume zein gazteentzat aisialdi jarraitu baten beharra azpimarratu duzue, baita negura begira aterpea duten guneen erabilera antolatzeko edo gunek estaltzeko ere. Ume zein gazteek tokia izan behar dute aisialdiaz gozatzeko, urte guztian zehar.

Alor honetan gure konpromisoa argia da, estalita dauden herriko azpiegiturak hobetu eta era eraginkorrago batean erabiliko ditugu, eta honetaz gain auzo nagusi bakoitzean gutxienez parke bat estalita ego-tea bermatuko dugu.

Bestalde, ume zein gazteei zuzendutako ekintza puntualei dagokie-nez, hauek egokiak izan daitezke eskaintza integral baten testuingu-ruan egiten badira, eta noski, ekintza hauetan ume zein gazte guztiek parte hartu ahal badute. Hala ere, Abadiño errealitatea bestelakoa da, eta nabaria da iraunkorrak izango diren eta urteko programak izango dituzten guneen beharra. Hezitzailea izango den aisialdirako gure pro-
posamena ludoteka (3-9 urte) eta gaztelekua (10-16 urte) sortzea da.

Proiektu hauek aurrera eramateko baliabideak ditugu herrian. Au-rrekontuetan bideratu daitekeen diru partidaz gain, baditugu kultur etxeak, udalarenak diren zenbait lokal, probalekua, Muntzaratzeko lokalak...

Ume, gazte zein familien parte-hartze zuzen eta aktiboaren bidez, proposamenak elkartrukatuta, eta gure herriko baliabideak eskakizun horietara egokituz, Abadiño behar duen aisialdi eskaintza izatea lortu-ko dugu.

MIKEL URRUTIA GALAN, ABADIÑO EHE BILDU

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

Dallas kafetegia
alokatzen da
Berriztatuta
Tel.: 672436085



mam
ginekologia
zentroa


Mikeldi 13, 48200-Durango
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

RPS 93/18




www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiburri)




DOMINOA

Ezagutzen al duzu domino jolasa? Bai, ezta?
Osatu ilada hau fitxetan falta diren irudiak marraztuz.



Osatu

Marra baten bidez, lotu
elur-panpin bakoitzari
falta zaion elementua.



Marraztu eta Margotu



JOLASAREN TXOKOA

Familian jolasteko beste modu bat

OTSAILAK 24
haur literatura

MARTXOAK 10
sukaldaritza



Plateruena Kafe Antzokian

www.berbaro.eus





Filmak Berdeagon

IKUS-ENTZUNEZKOA
DURANGO :: Otsailaren 10a

'It's Not Only About the Waves' eta 'Dantza', Plateruena kafe antzokian

Berdeago Azokaren eskutik, Kepa Acero surflariaren esperientzia batzen duen *It's Not Only About the Waves* eta Telmo Esnalek Txintxua Films-egaz batera sortutako *Dantza* proiektatuko dituzte Plateruenean, otsailaren 10ean. Film Berdea Gunean eskainiko dituzte, 18:00etan eta 20:00etan, hurrenez hurren.

Otsailaren 8an

ABADIÑO deialdia
Saharar errefuxiatuei bidaltzeko elikagaiak batzeko kanpaina.
Otsailaren 8an eta 9an, Eroski saltoki handian. Rio de Oro elkarte.

BERRIZ antzerkia
'Ehuna' (Dantzaz konpainia), 18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika
Izaki Gardenak + Montauk, 22:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO deialdia
Greba feministaren deialdia zabaltzeko kartelak ipintzeko elkarretaratzea, 11:00etan eta 21:00etan, Andragunean.

ELORRIO antzerkia
'Las princesas del Pacífico' (La Estampida), 20:30ean, Arriola Aretoan.

IURRETA antzerkia
'Pinotxo' (Glu-glu Produksioak), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 9an

DURANGO antzerkia
De Simba a Kiara (Tributo Rey Leon), 12:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO aurkezpena
Sup eta Yoga-ren onurak (Goazen Up), 12:15ean, Landako Gunean. Berdeago Azoka.
Pertsona migratzaileen integrazioarako zer suposatzen du lurrak eta bere ustiapenak (KoopSF34), 13:00ean.

DURANGO elkarretaratzea
'Mugak zabaldu' Tarajaleko sarraskia oroitzuz elkarretaratzea, 12:30ean, Andra Marian. Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak deituta.

DURANGO desfilea
Moda jasangarriaren desfilea, 19:00etan, Landako Gunean. Berdeago Azoka.

DURANGO emankizuna
'It's Not Only About the Waves', Kepa Acero, 18:00etan, Plateruena kafe antzokian. Film Berdea gunea, Berdeago Azoka. **Dantza (Telmo Esnal-Txintxua Films),** 20:00etan.

ELORRIO antzerkia
'Rita' (Txalo), 19:00etan, Arriola Aretoan.

Otsailaren 10ean

DURANGO tailerra
Haurrentzako jarraibideen gurasoentzako tailerra, 11:00etan, Landako Gunean. Berdeago Azoka. **Showcooking (Sukaldikas),** 12:45etik 14:45era.

DURANGO aurkezpena
'Etxean ogia egin nahi duzu?' (Ogiterapia), 17:00etatik 19:00etara, Landako Gunean. Berdeago Azoka.

ELORRIO antzerkia
'Martinaren parke fantastikoa' (Producciones Maestras), 17:00etan, Arriola Aretoan.

Otsailaren 11ra arte

DURANGO deialdia
Saharar errefuxiatuei bidaltzeko elikagaiak batzeko kanpaina.
Otsailaren 11ra bitartean, Alde Zaharreko Eroski saltokian. Rio de Oro elkarte.

Otsailaren 13an

DURANGO irteera
Adinekoentzat kultur irteera: Euskararen Etxea, 15:30ean, Durangoko tren geltokian. Doan. Izena eman behar da: 94 465 74 51 / adintek@durango.es



'Ehuna'

ANTZERKIA

BERRIZ :: Otsailaren 8an, Kultur Etxean

Teatro Paraiso eta Dantzaz konpainiek elkarlanean sortutako obra da 'Ehuna'. Kolorez beteriko irudizko munduan sartuko dute publikoa, Cristobal Balentziaga jostunaren sormenezko unibertsoan oinarrituz. Gaur, 18:15ean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

'Rita'
obra ikusgai
Arriola
antzokian

ANTZERKIA • Heziketa libreak eta bakoitzak bere bizitzan izandako esperientzia eta iriz-pideek irakaskuntza prozesuan duten eragina du oinarri Txalo Produkzioak-en obra honek. Franken (Joseba Apaolaza) eta Ritaren (Aitziber Garmendia) al-daketa eta askapena agerian ge-ratuko dira bien arteko irakasle-ikasle harremanaren ondorioz. Zapatuan da obra, 19:00etan.



Disko-festa eta magia
ikuskitzuna, Abadiñon

JAIKAK | San Blas egunak ba-tu zuen jenderik gehien Aba-diñon, joan zen domekan. Hala ere, datozen egunetarako ere antolatu dituzte ekitaldiak San Blas jaietan. San Blas 2019 Pilota Txapelketa jokatu-ko dute, gaur, arratsaldean. Bihar, berriz, umeentzako ekitaldiak izango dira nagusi.

Etxeko txikienentzat jolas-tokia egokituko dute frontoian, zapatuan. Horren ostean, dis-ko-festa ere egongo da Totoro Basoaren eskutik. Domekan, *Balio magikoak* ikuskizuna es-kainiko du Oliver Magoak. Txanporta kultur etxean izan-go da hori. Asteburu guztian zehar idi probak egongo di-ra probalekuan. Otsailaren 11n jokatu-ko da azken saioa, 22:00etan. Gero, sari banaketa egingo dute.

Otsailaren 8an

San Blas 2019 Pilota Txapelketa, 18:00etan, Tornosolo trinketea.

Idi probak, 21:30etan.

Otsailaren 9an

Umeentzat jolastokia, frontoian: 11:00-13:30/16:00-18:00.

Disko-festa: Bihotzen (Totoro Basoa), 18:30-20:00, frontoian. Gero, txokolatada.

Idi probak, 22:00etan.

Otsailaren 10ean

Oliver magoa: 'Balio magikoak', Txanportan: 16:00etan eta 18:30etan

Idi probak, 18:00etan

ELORRIO dokumentala
'Ouaga Girls', 19:30ean, Iturri kultur etxean.

Otsailaren 14an

DURANGO musika
Dj Txanbi, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai ekimenaren barruan.

ZALDIBAR berbaldia
'Basogintza, eta orain zer?', 18:30etik 20:00etara, Liburutegi Zaharrea. Basoen errealitatearen analisia eta Kolore Guztietako Basoak ekimenaren aurkezpena.

Otsailaren 15ean

ELORRIO jaialdia
Euskal Mendizaletasunaren XXIII. Gala, 19:00etan, Arriola Antzokian.

Erdellak antolatutako ekitaldi berezia. Ondoren, saritutakoekin afaria, Guria jatetxean, 21:30ean. Erreserba egiteko azken eguna, otsailaren 8a.

IURRETA berbaldia
'Nola gainditu heriotza bat?' (gaztelaniaz), 17:30ean, Nagusien Egoitzan. Durangoko Amankomunazgoaren Adinekoen Zerbitzuak antolatuta.

IURRETA bakarriketak
'Mujer vasca soltera busca' (Alazne Etxeberria), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Anderebidek antolatuta.

Otsaileko agenda



11	"PAPEREZKO HEGOEK" Iurretako Herri Biblioteka 17:30 3-4 urte bitartekoak, nagusi batez lagundurik. 18:00 5 urtetik gorakoak 19:00 Nagusien ipuin kontalaria "Matamala".
12	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 18:30 Nagusien irakurketa kluba: "Gailur ekaiztsuak" Emily Brontë
13	"IURRETA HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 XL Irakurketa kluba Azalerako ipuinak Iurretako Herri Biblioteka 16:45 0-18 hilabetekoak 17:30 19-36 hilabetekoak 18:30 Irakur lagunak
15	"ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA" 16:00 "Biodantza" tailerra Durangoko Amankomunazgoko Adinekoen zerbitzua 17:30 Hitzaldia: "Cómo superar una pérdida" Antzerkia aretoan Kultura Saila 19:00 Nagusientzako monologoak "Mujer vasca soltera busca"
16	"ANDEREBIDE MASPE" 9:30 Seguran bisita gidatua eta sagardotegian bazkaria



'Basogintza, eta orain zer?' berbaldia, otsailaren 14an, 18:30ean, Zaldibarko Liburutegi Zaharrea.

Otsailaren 28ra
arte

ELORRIO erakusketa
'Woman'. Maria Otxandiano. Argazkiak. Iturri kultur etxean, 09:30etik 21:00etara.

Martxoaren 3ra
arte

DURANGO erakusketa
'Bay Sala (1913-1995)'. Arte eta Historia Museoa.

Martxoaren 8tik 10era

DURANGALDEA irteera
Eski irteera Formigalera. Izena emateko, martxoaren 1era arte: alluitzmenditaldea@gmail.com. Abadiñoko Alluitz eta Iurretako Zaldai mendi taldeek antolatuta.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **La favorita**
barikua 8: 22:00
domeka 10: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **La clase de piano**
barikua 8: 19:30/22:00
zapata 9: 19:30/22:30
domeka 10: 19:00/21:15
astelehena 11: 18:30/21:00
martitzena 12: 20:00
eguzatena 13: 20:00

• **The Prodigy**
barikua 8: 19:30/22:00
zapata 9: 19:30/22:30
domeka 10: 19:00/21:15
astelehena 11: 18:30/21:00
martitzena 12: 20:00
eguzatena 13: 20:00

• **Todos a una**
barikua 8 19:30
zapata 9: 19:30/22:30
domeka 10: 19:00/21:15
astelehena 11: 18:30/21:00
martitzena 12: 20:00
eguzatena 13: 20:00

• **Uno más de la familia**
zapata 9: 17:00
domeka 10: 16:30

• **Dragon Ball Super: Broly**
barikua 8: 22:00
zapata 9: 17:00 (euskaraz + erderaz)
domeka 10: 16:30 (euskaraz + erderaz)

:: Elorrio ARRIOLA

• **Border**
zapata 9: 22:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Bajo el mismo techo**
barikua 8: 20:15
zapata 9: 19:30/22:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:15
• **Dragon Ball Super: Broly**
zapata 9: 17:00 (euskaraz)
domeka 10: 17:00



“Agertokietara itzuli bagara, kantu berri hauek zuzenean aurkezteko gogoia dugulako da”

Kontzertua eskainiko dute Izaki Gardenak eta Montauk talde gasteiztarrek, Plateruenean

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Etengabe hazten dabilen proiektua da Jon Basagurenek gidatzen duen Izaki Gardenak. 'Dena Oskol' laugarren lana aurkezteko biran datoz Plateruenera, barikuan. Zuzenekoetarako, Joseba Baleztenak ordezkatzuko du Danilo Foronda.

Zelan doa aurkezpen bira?

Lehen kontzertua [Gasteizen] oso sentsazio onekin jo genuen eta garrantzitsua izan zen hori, denboraldi bat zuzenekorik eskaini barik generaman-eta talde moduan, eta batzuetan kosta egiten da berriro martxa hartzea. Uste dugu jendeak gogotsu hartu dituela disko eta kantu berriak. Horrela ez balitz ere, guk geurea egitera jotzen dugu beti, eta agertokietara itzuli bagara, kantu berri hauek zuzenean aurkezteko gogoia dugulako da. Hedabideetan ere kritika onak jaso dituzue.

Asko eman diogu diskoari, baina badirudi diskoak ere asko emango

digula guri. Prentsaren aldetik, eta hedabide espezializatuen aldetik ere, oso erantzun ona jasotzen gabilta, eta ea kanta hauek ere bere egiten dituen jendeak, eta ea jende bategaz konektatzen dugun. Gu harro gaude egindako lanagaz, eta horixe da garrantzitsuen. Hortik aurrerakoa ez dago gure esku.

Soinu batean biltzen dira lan berriko abestiak.

Gure diskoetan, hasieratik bilakaera bat zentzu horretan. Disko osoagoak dira, nire ustez. Hasieratik, disko honek zentzu bat izatea gura genuen. Kanta batzuk ondo egon zitezkeen, baina kanpoan

“

Aurreneko diskoak kanta bilduma bat ziren gehiago; ‘Dena Oskol’-en koherentzia topatu gura izan dugu”

—

utzi ditugu, ez zirelako ondo sartzen. Kantu solteak egin barik, lan oso bat egin gura izan dugu. Raul Perez ekoizleak ere asko eman dio soinu aldetik, kantuak batu egin dira hor eta. Aurreneko diskoak kanta bildumak ziren gehiago. Aurri Gara diskoaren koherentzia eta trinkotasun hori topatzera joan ginen, eta azken honetan zeharo jo dugu horretara, baita hitzekin eta diseinuagaz ere, guztia borobildu guran.

Beraz, singleen garaiotan korrontearen kontra.

Ez dakit hori den. Orokorrean, gure senari edo gogoari jarraitzen diogu. Guri diskoak entzutea gustatzen zaigu, eta, egiterako orduan, disko osoak egitea, zortzihamar kantako lan osoak, atzean narratiba edo ideia bat dutenak. Abesterakoan ere, abesteko modua aldatu duzu. Erosoago sentitzen zara horrela abesten?

Kantatzen hasi nintzenetik, eten- gabea da prozesu hau eta uste dut

inoiz ez dudala amaituko. Nire ahotsaren bilaketa etengabea nabilt, eta, egia esan, gero eta graba- goetara edo tesitura apalagoetara jotzen dut, hainbeste apaindura- rik barik, eta gero eta erosoago sentitzen naiz horrela kantatzen dudanean.

Hitzek intimistak izaten jarraitzen dute, baina kutsu soziala duela edo ‘gu’ batetik hitz egiten duzuela esan daiteke?

Beharbada ez ginen horren bila joango, baina horrela da. Aurri Gara oso barrurako diskoa izan zen, barruan nituen galderak eta sentsazioak kanporatzeko, askatzeko beharretik sorturikoa, eta Dena Oskol, oster, kanpora begirakoa da gehiago, gizartean ikusten dudaren argazkiaren parekoa. Gauza intimistak ere badauden arren, orokorrean, ‘gu’ batetik idatzita edo ‘zuei’ batzuei idatzita dago.

Sevillara jo zenuten grabatzera.

Abestien hezurdura prest genuenean, non grabatu begiratzen hasi ginen. Urruntasun bat bilatzen genuen, eta Sevillako Raul Pizen

“

Taldearen filosofiak eta inertziak eraman gaituzte diskoa geuk egitera; horregatik sortu dugu Erraia kolektiboa”

—

La Minak horixe eskaintzen zigun. Isolatuta egon gura genuen graba- ketak iraun bitartean, eta horrela egon ginen grabazioko zazpi egu- netan, %100 diskoan barneratuta. Musika eta grabazioa ulertzeko duen moduagatik ere jo genuen Pe- rezengana. Kantuak oso lotuta era- man genituen hemendik, baina, soinu aldetik, Perezek askatasun osoa izan du gure kantuen inter- pretazio bat egiteko. Guretzat oso esperientzia aberasgarria izan da.

Erraia kolektibopean kaleratu du- zue, autoekoizpenera joz.

Taldearen filosofiak eta inertziak geuk egitera eraman gaituzte, bai- na ez genuen gura geuk bakarrik egitea guztia. Gasteizko musikari lagunekin ikusi genuen bazegoela interes bat batzeko, eta Montau- kegaz eta Joseba B. Lenoirregaz elkarlanean sortu dugu Erraia kolektiboa.

Montaukegaz batera arituko zarete Plateruenean. Proposamen ezber- din bi izatera, eta euskaraz, merezi duen arreta eskaintzen zaizue ko- munikabideetan?

Ez dakit merezi duen arreta ema- ten zaion ala ez. Hori oso zaila da neurtzen, eta, gainera, batzuetan negarkerietara jotzen dugu eta ez da komeni. Nik gurago dut lanean jarraitu. Oso pozik goaz Platerue- nera, asebeteta utzi gaituen disko bategaz goazelako, eta baita gure lagun, hirikide eta zigilukide diren Montaukeko kideekin goazelako.



bnature

Sarrera Dohainik

otsailak 9,10
2019

Elikadura ekologikoa eta km0

Ekonomia soziala

Osasuna eta ongizatea

Ekintza sozialak

azoka

Landako Gunea, Durango
www.berdeago.com

antolatzailea | organizador



babesleak | patrocinadores



zurekin

Glu-glu konpainiaren 'Pinotxo' lanagaz abiatuko da bariku honetan Iurretako Antzerkia Bultzatuz jaialdia

Genero ikuspuntua landu gura izan dute bereziki bosgarren edizio honetan. Guztira, zazpi obra aurkeztuko dituzte beste horrenbeste antzerki konpainiek Ibarretxe kultur etxeko aretoan. Anderebide elkarteak ere parte hartu du antolakuntzan

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Pinotxo ikuskizunagaz emango diote hasiera 5. Antzerkia Bultzatuz jaialdiari. Guztira, zazpi antzezlanek osatuko dute zikloa, eta haurrentzako zein nagusientzako obrak izango dira. Oraingoan, genero ikuspuntua landu gura izan dute. Izan ere, Anderebidegaz elkarlanean antolatzen dute jaialdia. *Sex o no Sex* klown ikuskizuna eta *Futbolariak eta Printzesak* (umeentzat) antzezlanek ikusleari zer hausnartu eragitea gura dute antolatzaileek. Antzerki "serioaren" aldeko apustua ere egin dutela nabarmendu du Pili Jimenez Ibarretxe kultur guneko arduradunak. "Komediako antzezlanekin aretoa betetzea erraza da. Hala ere, drama jorratzen duten antzezlanetara ere gonbidatu gura ditut herritarrek", esan du. Horrela, *Fríos y Cálidos* eta *Idiota* antzezlanak nabarmendu ditu Jimenezek.

Antzerki eskaintzaren alde Iurretan egiten ari den ahaleginean, Antzerkia Bultzatuz jaialdia orain hamarkada bat baino gehiago mar-

txan daraman Kalek Kale kale antzerki jaialdiari batzen zaio. "Hilean behin, kalitatezko antzerkia ikusteko aukera eskaini gura diegu iurretarrei", azaldu du Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak.

Saioak, doan

Ekimenaren helburua Ibarretxe kultur guneko aretoko programazioa finkatzea da. Horrez gain, antzerkia herritarrei hurbiltzeko ahalegina ere bada, eta,

hori dela-eta, doakoak izango dira saioak. Aurretik gonbidapenak hartzea ezinbestekoa izango da. Antolatzaileek azaldu duteenez, 15.000 euroko aurrekontua du jaialdiak.



'Pinotxo' ikuskizuna.

'Woman' Elorrioko argazki erakusketak emakumeen arazoak plazaratzen ditu

ERAKUSKETA • JOSEBA DERTEANO

Maria Otxandiano argazkilari elorriarraren erakusketa berria inauguratu dute, asteon, Elorrioko Iturri Kultur Etxean, eta otsail osoan zehar bisitatu ahal da.

'Woman' izeneko erakusketak emakumeek pairatzen dituzten arazoak dokumentatzen eta salatzen ditu, argazkilariaren beraren barne-mundutik abiatuta. "Otxandianoren argazkiek

hizkera sotil eta intimista erabiltzen dute eta inperfekzioaren atzean ezkutatzeko den edertasunera hurbiltzen du bisitaria", adierazi dute erakusketa antolatzen duten Elorrioko argazki taldeko kideek. Argazkiak Tokion, Bilbon eta Europako beste zenbait hiriburutan egin zituen.

Erakusketa otsail osoan bisitatu ahal da: astegunetan 09:30etik 21:00etara, eta zapa-tuetan 10:00etatik 13:00etara.



Martitzenean inauguratu zuten erakusketa, Elorrioko Iturri kultur etxean.

Gai librea

Libe
Mimenza Castillo
Kazetaria



Ikusi arte

Bukatu dira. Amaituta. Ez dago gehiago. Finitu dira. Gastatuta. Agortuta. Ahituta. Azkenak eta kito, akabo.

Agurra eskizofrenikoa zaigu diosal eta despedida hitz beraren doinu direnean. Onegiaren aieruari agur. Okerreko galgak ez ezagutzeko, agur. Oihu batek dakar agurra, edo isiltasuna bihurtzen da berez agur bat. Esan nahi ez diren agurrak ere badaude. Esan ezin diren agurren alboan. Esango ditugun agurren altzoan. Beldurrak dio agur usu, beldurrari ere agur egiteko. Ausarta dela ezin uka agur esateko adorea.

Mundu guztiarekin ongi gelditzea ezinezkoa dela konturatuko zara zioten duela 25 urte. Profezia bete da mende laurden eta gero. Soinua zarata bihurtu du distopiaren saldoak, eta horrela ezinezkoa da utopiaren akordea entzutea.

Aste honetan, adimen artifizialak bukatu du Schubert-en zortzigarren sinfonia "amaitugabea", eta inoizko audientzia marka guztiak hautsi ditu bideo-joko batean Marshmello DJak eskainitako kontzertu birtualak: 10 milioi entzule. Gurean, inork ez ditu Lekunberriko taldeak beste sold out egin jarraian (dozena bat aste bakarrean); konplexu ikararik gabe, euskaraz. Fenomenoak xaxatzetik fenomeno bihurtzera dagoen aldea.

Tristura nabari da, keinu partikular gisa, azken zuzeneko egarri diren partiturretan. Azken sarrerak, soilik lekuko izateko kondena epaia ezagun denean. Hasi eta bukatu egiten diren gauzen multzo horretan dago maitasuna. Orobat, musika. Ez dira berri txarrak, ez. Berri Txarrak dira.



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

DIBA
KOOPERATIBA

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Elorrioko Akadantz lehiaketan 36 taldek parte hartuko dute, eta horien artean Durangoko talde bi ere egongo dira

DANTZA • KAROLINA SUAREZ

Elorrioko Akadantz dantza urbanoko lehiaketan 36 dantza taldek parte hartuko dute. Horien artean, Durangoko bik: Tik Tak Dantz eta No Limits taldeek.

Break on Stage finalera heltzeko lehenengo kanporaketa Elorrioko Arriola Antzokian jokatu da, otsailaren 16an. Emanaldi bitan banatu da saioa: 16:00etan, bikoteak eta

Elorrioko kanporaketa otsailaren 16an izango da eta sarrera guztiak agortuta daude jada

Apirilaren 6an izango da Break on Stage dantza urbanoko lehiaketako finala, Bilbao Arenan

gazte kategoriakoak lehiatuko dira. 19:00etan, berriz, nagusien dantza urbanoa eta dantza esperimentalak izango dira protagonistak. Katagoria bakoitzeko onena helduko da finalera. 2008an hasi ziren txapelketa egiten Elorrion. Azken urteetan Bilbora lekualdatu dute Break on Stage. Elorrion finalaurrekoa jokatu ohi da, eta harrera bikaina izaten du.



Akadantz lehiaketako 2018ko artxiboko iruditan

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Lehiaketa baten bidez, euskarazko ereserki berria aukeratuko du Durangoko Kulturalak 100. urteurreneko ospakizunen barruan

Ekitaldiak urte osoan zehar egingo dituzte eta futbol klubeko arduradunek mendeurreneko jaiaren parte izateko deia egin diete herritarrei



Kulturaleko hainbat arduradun, Durangoko Elkartegian urteurreneko ekimenak aurkezteko eskainitako agerraldian.

iragartzeko, San Fausto jaien inguruan. Deialdiekin amaitzeko, argazki lehiaketa bat ere jarriko dute martxan.

'Kultukapsula' izeneko da beste ekimen bat. Kaxa batean Kulturalari lotutako gauzak gordeko dituzte, hemendik ehun urtera kaxa zabaltzen dutenek Kulturaleko historia berri izan dezaten. Herritarrei galdetuko diete bertan zer gorde.

Izen handien bila

Izen sonatuek distira eta oihartzuna ematen dizkiete ospakizunei, eta horren bila ere badabiltza. Alde batetik, Kulturalaren eta beste futbol talde baten arteko partidua iragarri zuten, izenik eman barik, baina sona handiko talderen bat ekartzeko borondatea adieraziz.

Beste hainbeste esan daiteke buuruan darabilten musika kontzertu bati buruz ere: talde garrantzitsuren baten bila dabiltza.

Gazteen nazioarteko torneo

Ekain inguruan gaztetxoek (12-13 urte) arteko futbol torneo antolatuko dute. Euskal Herriko taldeez gainera, nazioartekoak ekartzeko asmoa ere badute. Ahalik eta torneoik ikusgarriena eta gustagarriena egiten saiatuko direla azaldu zuten aurkezpenean.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Aurten ehun urte bete dira Durangoko Kulturala futbol kluba sortu zutenetik, eta mendeurren batek merezi duen moduko ospakizuna prestatzen dabil zuzendaritza. Momentuz, pentsatuta dituzten ekimenak jakinarazi eta bakoitzaren

gaineko zertzelada batzuk eman dituzte, ekimen bakoitzean gehiegi sakondu barik.

Egitaraia osatzerako orduan, irizpide nagusi bi hartu dituzte kontuan: kirol mundura bakarrik ez mugatzea eta herritarren partaidetza bilatzea. "Durangarrak ospa-

kizuneko zati izan daitezela gura dugu", azaldu zuen Jon Andoni Bengoetxea Kulturaleko presidentea ekimenen aurkezpen ekitaldian.

Ereserki berriaren bila

Klubaren euskarazko ereserki berria aukeratzea da urteurreneko

helburu bat. Horretarako, lehiaketa bat abiatu eta gura duten herritarrek parte hartu ahal izango dute. Beste lehiaketa baten bidez, Kulturalaren historia edo gertaera kurioak liburu batean jaso gura dituzte. Deialdi bi horiek martxoan egingo gura dituzte, irabazleak urrian

Hurbiletik

"Moderno den ereserki bat gustatuko litzaidake; ikusiko dugu, deialdi zabala izango da"

Erantzukizun handiko eta eginkizun askoko urtea gidatzea egokitu zaio Jon Andoni Bengoetxea Kulturaleko presidenteari. Hala ere, ardurei aurre egiteko gogotsu dago.

Ekitaldi asko iragarri dituzte urteurrena ospatzeko.

Ehun urte betetzen dituen klubak modurik onenean ospatu behar duela uste dugu. Ez da nolanahiko lorpena. Ilusio handiz gabiltza lanean. Ez dira kirolari lotutako ekintzak izango bakarrik. Sarritan kirolak eta kulturak lotura estua dute eta ikuspegi

zabalagaz jardungo dugu. Gure helburua ahalik eta jenderik gehienarengana heltzea da. Ekintza herrikoien bidez, durangarrak urteurreneko ospakizunetan partaide gura ditugu. **Ereserki berri baten bila zabilazte.**

Ehun urte ditugu eta, zelanbait esanda, ereserki ofizialik barik gaude. Baditugu urte asko dituzten ereserki moduko batzuk, baina guk euskal ereserki berri bat gura dugu. Niri, partikularki, ereserki moderno bat izatea gustatuko litzaidake, baina ikusiko dugu. Deialdi zabala izan-



JON ANDONI BENGOTXEA
Kulturaleko presidentea

go da, eta edonork prestatu ahal izango ditu bere letra eta bere musika. **Gazteen nazioarteko futbol torneo da azpimarratu duzuen beste ekintzetako bat.** Athletic, Real, Alaves eta gure inguruko taldeez gainera, nazioartekoak ere gonbidatzea da asmoa, ekain inguruan. Beste toki batzuetan egiten badute, zergatik ez gurean? Durangarren artean ikusteko gogoa piztuko duen torneo bat antolatu gura dugu.

Hurbiletik

"Futbol talde garrantzitsu bat etortzea gustatuko litzaidake; Athletic edo ospea duen beste bat"

Emilio Esturok Kulturalaren esentzia gorpuzten du. Modu batera edo bestera, ia bizitza osoa klubari lotuta darama: jokalaria, bazkide, presidente... Eta partiduen denak bertatik bertara jarraitzen ditu.

Ekimenen aurkezpenean hunkituta ikusi zintugun.

Egunero ez dira ehun urte betetzen. Eta hainbeste bizi izan dut klub honetan!

Makina bat ekintza iragarri zenituzten.

Denak gauzatzen badira, urteurren dotorea geratuko da. Alde batetik, dirua

beharko da eta, bestetik, batzorde on bat sortu beharra dago. Ezin daiteke lau lagun artean egin.

Zer ekintza azpimarratuko zenituzke?

Benetako ereserki bat izatea gustatuko litzaidake. Orain 25 bat urte egin genuen bat, baina ez du funtzionatu. Kulturalaren inguruko datuak batuko dituen lehiaketa ere interesgarria iruditzen zait. Futbol partiduari dagokionez, talde garrantzitsu bat etortzea gustatuko litzaidake. Athletic edo ospea duen besteren bat.



EMILIO ESTURO
66 urtez klubeko kidea

Kirol arloari dagokionez, talde nagusia azkeneko dago Bigarren B Mailan: Salbatuko da?

Inoiz ere ez da jakiten, eta azkenera arte borrokatu beharra dago, baina ez dago batere erraz. Ez dugu golik sartzen! Esaterako, Mirandes eta Logroñes moduko talde indartsuen kontra oso ondo lehiatu arren, bietan 1-0 galdu dugu. Azken zazpi partiduetan gol bi baino ez ditugu sartu.

Muay Thai-ko elitean Euskadiko txapela lortuta debutatu du Camarak

Bere pisuan, 54 kilora artekoan, nagusitu zen Marta Camara 18 urteko elorriarra

MUAY THAI • J.D.

Indar XSport klubeko harribitxi gazteak, Marta Camara elorriarrak, Muay Thai-ko Euskadiko txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan, Gasteizen. 18 urte gaz, estreinaldia zuen elite mailan, baina, hala ere, bere pisuko —54 kilo baino gutxiago— onena izan zen. Lehiatutako borrokaldi biak irabazi zituen. Euskadiko txapelketan egindako lanari esker, Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuen. Estatuan ere debutatu egingo du nagusiekin, eta esperientzia bereganatzea izango du helburu nagusi.

Joan zen asteburukoa ez du Euskadiko lehenengo txapela. Iaz ere irabazi egin zuen, baina orduko hartan junior mailan.



Marta Camara Gasteizen, Dani Nuñez bere entrenatzailearekin.



Lorese egindako omenaldiko irudia

Azken agurra egin diote Duranguesa elkarteko Jose Lorese

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Joan zen domekan Duranguesa txirrindulari elkarteko Jose Lorese hil zen, 72 urte gaz. Txirrindulari gazteen entrenatzaile eta hezitzaile izan zen 35 urte baino gehiagoan. “Gorputz eta arima jardun zuen horretan. Bere pasioa harrobia lantzea zen. Loresek hainbeste defendatu zuen harrobiari lehentasun osoa ematen jarraituko dugu”, adierazi dute Duranguesa elkarteko kideek. Orain urte bi omenaldia egin zioten San Agustin kultur gunean.

Jokaldia

Kepa Arroitauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Hainbat interesgune

Profesional mailatik haratago, hainbat interesgune ditu pilota munduak, eta Aimar Olaizola-ren lesioa berba nagusi bada ere pilota *korrikoetan*, zutabe honetan hanka puntetan pasatuko dut gai hori. Egia da goizuetarraren baja garrantzitsua dela eta Baiko-ren aukerak asko gutxitu direla binakako nagusian, baina kirola horixe da, jokoa bai, baina zortea ere bai.

Gaur bertan hitzordu garrantzitsua izango dute trinkete zaleek Abadiñon. San Blas sariko finala jokatu da eta ez dira bertan izango ez Gonzalez-Aspuru, ezta Ziarrusta-Ugarte ere. Bererik eman gabe finalurrekoetan kale egin zuten pasa den barikuan, eta aurten iparraldekoak dira titulua eramateko hautagai. Monce-Garat dira bikote faboritoa, baina Iturberengan eta Arabiourrutiaengan bada esperantza Abadiñon.

Etxeko pilotariak partidu dotorea egin zuen finalurrekoan, eta seguru halakoa egingo duela gaur ere. Bere gaitasun nabarmenena horixe da, pilotari erregularra eta fina dela. Bere gaitasunak zeintzuk diren badaki eta horiek probesten saiatzen da, gabeziak saihestuz.

Gazteagoko mailetara joan da, asteburu garrantzitsua da txikienentzat. Bizkaiko eskolarteko finalurrekoen txanda da. Zaldibarren gaur eta Zornotzan, Arrigorriagan eta Sopelan bihar, gure lurraldeko ‘txikitxo’ nabarmenenek Iurretan hurrengo larunbatean (otsailaren 16an) izateko ahaleginak egingo dituzte. Elorrioko Hori-Hori, Durango, Iurretako Olaburu edo Zornotzako Lagun Onak ibiliko dira, besteak beste. Maila gorenera iristeko, beheko mailetan egin behar da lan, eta horretan dabilzanentzat aupada bat hemendik. Pilotan gozatuz jarraitu dezatela.

Asteko kirolaria

“Konfiantzagaz gabiltza, eta orain dugun dinamika onagaz jarraitu behar dugu”

Iker Bilbaok urtebete darama Amorebietan; joan zen astean, gola sartu zuen

Hiru puntu garrantzitsu lortu ditu asteburuan Amorebietan. Tudela noren aurka 0-2 irabazita, jaitsierako postuetatik irteera lortu dute zornotzarrek.

Asteburuan lortutako garaipenagaz jaitciera postuetatik irteera lortu duzue.

Asteburuan lortu dugun garaipena garrantzitsua da, batez ere, garaipenak konfiantza ematen duelako. Hala ere, badakigu gauden tokian egonda, ondo jokatzeko eta apurka-apurka gorantza joaten jarraitu behar dugula. Momentu honetan, dinamika onean gaude, taldea sendo dago eta bide honi eutsi behar diogu.

Nola joan zen partidua?

Zelaira irten ginenetik, bagenekien haizea aldeko genuela, eta lehenengo momentutik presioa ondo egiten hasi ginen. Hamargarren minuturako lehenengo gola sartu genuen, eta atsedenaldirako gol biko errentagaz geunden. Bigarren zatian intentsitate berdineagaz jarraitu genuen eta Zornotzara hiru puntuak ekartzea lortu genuen.

Azken partidu bietan sei puntu baliotsu lortu dituzue. Azken asteotan, aldatu duzue ezer zuen prestaketan?

Egia esan, ez dugu ezer aldatu prestaketan. Partiduak berdindar berdin prestatzen ditugu. Lehen

ere sortzen genituen aukerak, baina ez genuen gola sartzea lortzen. Azken partiduetan, ostera, ondo errematatzea lortu dugu. Alde izan ez dugun zortea, orain aldeko dugula esango nuke.

Hurrengo norgehiagoketarako, nola ikusten duzu taldea?

Konfiantzagaz gabiltza, eta orain dugun dinamikagaz jarraitu behar dugu. Lehenengo minututik borroka egin beharko dugu garaipenak eskuratzeko, orain arte bezala.

Gernikan jokatu ostean, lehenengo urtea duzu Amorebietan. Nolako taldea aurkitu duzu? Taldekide batzuk aurretik eza gutzen nituen eta giro oso oneko



IKER
BILBAO MENDIGUREN

Larrabetzu, 1996

taldea aurkitu dut. Jende jatorria dago, eta oso erraz moldatu naiz talde berri honetara. Talde ona da, bai zelaian eta baita kanpoan ere.

Nola ikusten duzu zure burua taldean?

Hasieran lesionatuta ibili nintzen arren, hasi naiz jokatzeko apurka-apurka. Orain, ahalik eta denboraldirik onena egiten saiatu gura dut, taldeak emaitza onak izan ditzan. Azken batean, bakoitzak egindako ekarpenetik lortzen ditu taldeak emaitzak.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Arrike
Liburudenda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

hitz
liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#gomendioak
Mikel Laboa
HELDUENTZAT
Mikel Laboa
Askoren artean
2017
UME ETA GAZTEENTZAT
AIZAK ETA AIZAN
ELKARREKIN DANTZAN
Anjel Lertxundi & Antton Olariaga
2002
MUSIKA
HARVEST (vinyl)
Neil Young
1972



iragarki laburrak .eus

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiño, Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi baduzu deitu 600464411, etxetu53@gmail.com

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo igeltsero moduan. Tel.: 631 01 54 95

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 684 14 15 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Berehala lanean has naiteke. Tel.: 631 92 55 25

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, baserrietan. Baita garbiketa lanetan

ere. Tel.:632-51 82 68

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 698 88 10 12

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-42 69 23

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Geriatria, alzheimer eta parkinsonen espezializatutako emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-54 11 91

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako, gauetako edo asteburuetak langilea. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 631- 71 70 41

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Gizonezkoa lan bila dabil baserrietan, landa gunean. Baita abereak zaintzen ere. Tel.:612-23 27 31

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-49 25 19

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere.

Tel.: 602-82 72 84

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Adineko pertsonak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia dut, arduratsua naiz eta erreferentziak ditut. Tel.:612-49 25 19

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 698-73 33 56

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-92 55 25

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Eskarmentua dut. Tel.: 688-26 35 70

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo peoi moduan ere. Tel.: 698-87 37 09

Adineko pertsonak zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 603-29 07 99

Adineko pertsonak eta umeak

zaintzen ditut. Lan bila nabil adineko pertsonak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko edo ordukako langilea. Eskarmentua daukat. Tel.:698-83 59 16

Zaintzaile moduan lan bila. Zaintzaile moduan lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka eta barneko langile moduan lan egiteko prest nago. Berehala hasteko telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: 631 925 525 Eskerrik asko.

Esperientziadun umezaina. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientziako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

ETXKO LANAK

Etxea garbitzeko eta umea zaintzeko pertsona

euskaldunaren bila. Epe luzerako pertsona euskaldun baten bila gabiz. Eginbeharrak:1- Etxeko lanak astean bi egunetan goizez (1h30minutuko tanda bi): hautsa kendu, plantxa, komuna garbitu, leihoak garbitu... 2- Ume jaioabarria dogu. Gaixotzean egun osoa berarekin egoteko prestutakuna behar dogu. Tel. 629354078

PLANTXA ORDUKA EGITEN DUT.

Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar dugu. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun baten bila gabiltza, Durangon. Tel.:656-73 77 79

IRAKASKUNTZA

Zaldibarko Koral Elkarteak euskal dantzak emateko irakaslea behar du. Zaldibarko Koral Elkartea 4 urtetik aurrerako ume eta gazteei euskal dantza eskolak emateko irakasle bila dabil. Interesa izanez gero, jarri gurekin harremanetan. Tel.: 652-26 74 94



Deskarga ezazu aste honetako

ttop

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

 DESKARGATU
APP Storean

 DESKARGATU
Play Storean





Botikak

BARIKUA, 8 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 9 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 10 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 11 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 12 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 13 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 14 · 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak, **Naira!** Otsailaren 1ean 11 urte beteko dituzu eta zutaz oso harro sentitzen gara. Maite zaitugu. Aita eta ama.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. **DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Elene (749. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Enaitzek, Peiok, Bingenek, Oierrek eta Aratzek 11 urte egingo dituzte urtarrilean eta otsailean. Zorionak, mutilak!

Iñigo Couso Ariznabarretak 3 urte bete zituen urtarriaren 29an. Zorionak etxeko denez partez. Besarkada handi bat.

Zorixonak **Intza**, laztana! Domekan 9 urte handi beteko dituzu. Ze ederra zu hazten ikustea. Ondo ondo ospatu! Maite zaitugun danon partez.

Kattalin Del Rio Zabaletak, Abadiñoko sorgintxo politenak, lau urte eitten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoen partez, eta bereziki asko maitte zaituen Aratzen partez.

Otsailaren 11n, Axpeko **Mikel** Armendiak 8 urte egingo dauz. Zorionak eta mosu haundi bat, Axpe eta Mañaritik.

Zorionak, ama, eta ondo pasau zure eguna. Mosu bat.

Zorionak, **Marta** Camara! Elorrioko Indar Xsport kirol talde guztiaren partez! Bigarren urtez Euskadiko Muay Thai txapeldun geratu zarela. Orain arte egindako esfortzu guztiaren ondoren merezi duzu. Zorionak, txapeldun.

Zorionak, **Ion**, familia danan partez! Izugarri maite zaitugu, musuu!

R.P.S. 214/06

A. Urreta

podólogo

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - **DURANGO**
Tel./Faxa: 946 215 404

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Itsas espagetia eskatzen digute gehien; zapore suabea du, eta testura atsegina”

Algen propietateak eta eskainitako aukerak azalduko dituzte Berdeago Azokan

Amaia Del Hierro Garate eta Garazi Sarrionandia Del Hierro •
Alga artean

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Alga hautsa, deshidratatuta edo gatzetan jarrita, eta kontserbako algak saltzen dituzte Amaia del Hierro (Zaldibar, 1969) eta Garazi Sarrionandia (Mañaria, 1992) ama-alabek, orain urte eta erditik hona. Galiziatik, Andaluziatik eta Britainiatik ekartzen dute, Atlantikoan hartutakoa, eta hauen propietateak eta zaporea ezagutarazi gura dituzte. Harreman sare bat ere sortu gura dute, algekin hainbat produktu lantzeko: gazta, txokolatea, marmelada, garagardoa... Gustura dabilta alga artean, esperimentatzeko aukera dutelako.

Itsasoa baino, mendia duzue gertuago. Nolatan alga artean sartuta?

Amaia: Beti izan dut itsasoagaz hartu-emana, Debakoa da ama. Baina, arrazoi komertziala dago atzean. Bagenekien nolako propietateak dituzten algek, baina ez nolako jokoa ematen duten sukaldean. Merkatu polita zegoela ikusi genuen.

Garazi: Ekologikoa edo makrobiotikoa kontsumitzen dute-nengandik aparte, kozinatzen tradizionala izanda gauza berriak probatu gura dutenak ere badaude. Propietate asko dituzte algek, eta goxo daude.

Ortukoak baino osasuntsuagoak dira itsasoko barazkiak?

Amaia: Bai, askoz ere propietate gehiago dituzte: mineral mordoa (iodoa, potasioa, zinka...), eta oligoelementuak eta bitaminak; batez ere, B12a. Proteina eta zuntz asko eta garbitzeko ahalmen handia. **Ez gaude ohituta algak jatera.**

Garazi: Etxeko sukaldean ez dugu ohiturarik, ez. Baina chef handiek gero eta gehiago erabiltzen dituzte. Galiziatik ekartzen ditugu algak batez ere, eta han oso eza-gunak dira. Jateko ohitura handia dago, itsasotik jaso-

tzen dituzte eta haztegiak daude. Hemen, itsasoak ekarrita hondartzan batutako alga hilak datozkigu gogora. Algen mundua oso zabala da.

Zenbat alga mota daude?

Amaia: Hemen, 70 bat dira ezagunak eta guk 15egaz egin dugu lan. Asian gehiago erabiltzen dituzte.

Zeintzuk daude modan?

Garazi: Wakamea asko erabiltzen da, zopetan. Baina, gehien-gehien, itsas espagetia eskatzen digute; zapore suabea du, testura atsegina, eta erraz kozinatzen da. Egokia da probatzen hasteko.

Amaia: Kombu, arame eta isikia asko erabiltzen dira osasunagaz lotuta. Ulse, musgo eta letxuga daude modan.

Ez daukazue eukal kostako algarik?

Amaia: Jangarriak izateko, uren

kontrol bat behar da. Galizian edo Cadizen, hemen ez daukagun industria daukate, eta alga freskoak ere kontsumitu ditzakezu; gatzetan kontserbatuta edo deshidratatuta ere bai. Gure kostatxikia ere

Berba bitan

Algekin egindako plater bat?

Amaia: Alga krema

Garazi: Arroza, risotto eran

Mendia ala itsasoa?

Garazi: Itsasoa

Amaia: Gaur egun, mendia

Zer kalitate estimatzen duzu?

Amaia: Naturaltasuna

Garazi: Ekimena, beti aurrera egiteko gaitasuna

Pelikula bat?

Garazi: Origen

Amaia: Roma

bada. Bestalde, perretxikoekin gertatzen den lez, algak ezin dira edonola jaso. Agortu egingo lirateke. Kontu handia eduki behar da.

Aukera asko ematen dituzte sukaldean?

Amaia: Bai. Gura den zapore edo kolorearen arabera kozinatuko ditugu. Hori bai, neurri txikian eta beste zerbaitegaz jan behar dira.

Garazi: Testura aukera oso zabala da, eta itsasoa-ren zaporea dute. Barazkiek bezala, aukera asko ematen dituzte algek, baina desberdinak.

Lau hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Urte berri bat

Ia ohartu gabe alde egin digu beste urte batek. Adinean aurrera joan ahala gero eta azkarrago igarotzen dira urteak. Ispiluari begiratzean, atzoko umea gaurko gizon edo emakumea islatzen da, azal zimurtua eta ile zuria nabarmentzen zaizkigularik. Aurpegi nagusi horretan zenbat oroitzapen eta gertakizun nabarmentzen den! Nire kasuan, hirurogei urte igaro dira eta ohartzen naiz dena ziztu bizian igaro dela. Bizitza nahiko zoriontsua izaten ari denaren seinale, kontrakoa izan balitz denbora bukaezina izango zelako.

Niri dagokidanez, jaio berri den urte honi erritmo hontan jarraitzea eskatzen diot. Eskaerekin jarraituz, bai Olentzero eta bai Mendebaldeko Erregeei, hurrengo nahi edo desio hauek eskatzen dizkiet:

*Emakume eta gizonon artean parekotasuna eta errespetua izan dadila.

*Era guztietako bortxakeriak desagertzea.

*Umeak, bai familian eta baita eskolan ere, egoki eta zuzen hezteak.

*Klima aldaketari frenoa jartzea.

*Osasuna, lana eta bizipoza nagusi izan daitezela.

*Politikariak ondraduak, adituak eta herritarren alde lan egiten dutenak izatea.

Behin eskatzen hasita, askoz ere gauza gehiago eska dezakegu, baina uste dut lan erraldoiaren ondoren nahiko nekatuta egongo direla eta aurtengo nahikoa izango dela.

Datorren urtean balantzea egingo dugu, emaitzak nolakoak izan diren aztertzeko.

Urte zoragarria izan dezagula.



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)